Horrek, bada, espeziearen banaketa baldintzatzen du: urria da Bizkaian eta Gipuzkoan, eta ohikoa, berriz, Araban eta Nafarroan.

Ez da mehatxatutako espeziea, baina hainbat míru beltz hil ohi da linea elektrikoarekin talka egiteagatik edo pozoituta.

## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### MIRU BELTZA





## RAPACES DIURNAS

MILANO REAL



## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### MIRU GORRIA

#### Milano Real (Miru Gorria)

##### *Milvus milvus*

Tiene de 60 a 66 cm de talla.

Es migrador parcial que abandona el centro y norte de Europa en invierno, pero sedentario en nuestras latitudes, donde invernan parte de los migrantes nórdicos. En el Pirineo abandona las cotas elevadas, en la estación fría, para refugiarse en los valles.

Se parece al Milano Negro del que se distingue por su colorido más claro, en tonos castaño-rojizos, aspecto general más esbelto y, sobre todo, por la cola más profundamente ahorquillada.


Anida en árboles, al borde del bosque y caza en los terrenos abiertos circundantes: praderas y pastizales, barbechos y campos de labor, etc.

No suele criar en cotas altas, pero es frecuente verlo sobrevolar los pastizales del piso alpino a la caza de ratones, topos, saltamontes o cualquier otro animalillo que se deje sorprender.

Su tipo de alimentación es de lo más variado: predador de pequeños vertebrados e insectos, carroñero, rebusca despojos y restos de comida en los basureros y parasita a otras aves robándoles sus presas.

Pone, en general, tres huevos en un nido de palos y ramas muertas donde amontona, a modo de forro, toda clase de materiales, como trapos, papeles, musgo, plásticos, etc.

Los pollos suelen permanecer en el nido hasta el mes de junio.



#### Miru gorria (Milano Real)

##### *Milvus milvus*

60 eta 66 cm artean neurtzen ditu.

Migratzaile partziala da, Europako erdialdetik eta iparraldetik alde egiten baitu neguan. Dena den, gure inguruan, Europako iparraldeko migratzaileek negua igarotzen duten lurretan, sedentariotzat jotzen da. Esaterako, Pirinioetatik alde egiten du neguan, eta ibarretan bilatzen du babeslekua.

Miru beltzaren antza du, baina kolore argiagoa du, gaztaina eta gorri-koloreko tonuekin; oro har, itxura lirainagoa du, eta, batez ere, sarde itxura nabarmeneko buztana da haren ezaugarriarik deigarriena.

Habiak zuhaitzetan jartzen ditu, baso-ertzetan, eta inguruko eremu irekietan ehizatzen du: zelaietan eta belardietan, lugorri eta lursailetan eta abarretan.

Ez da goi-mendietan umatzen, baina ohikoa da mendietako belardiak zeharkatzen ikustea, saguak, satorrak, matxinsaltoak edo ustekabeen harrapa dezakeen beste edozein animalia txikiren bila.

Askotariko elikagaiak jaten ditu: ornodun txikiak eta intsektuak harrapatzen ditu; sarraskijalea ere bada, eta janari hondakinak bilatzen ditu zabortegetan, eta, gainera, beste hegazti batzuen kontura ere bizi daiteke, haiek harrapatutakoa lapurtuz.

Hiru arrautza errun ohi ditu makilez eta adar lehorrez egindako habian. Habian, gainera, mota guztietako materialak jartzen ditu, estalki moduan: trpuak, paperak, goroldioa, plastikoak...

Txitak habian geratu ohi dira ekainera arte.

## RAPACES DIURNAS

### ÁGUILA REAL





## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### ARRANO BELTZA

#### Águila Real (Arrano Beltza)

##### *Aquila chrysaëtos*

Su talla es de 75 a 88 cm; envergadura de 204 a 220 cm. Es una especie sedentaria, salvo el erratismo de la época juvenil.


El adulto es de color pardo oscuro uniforme, con la cabeza y nuca en tono dorado. Los jóvenes tienen grandes manchas blancas en alas y cola, muy conspicuas en vuelo, que van desapareciendo con la edad.

Como sucede en otras muchas rapaces, la hembra es mayor que el macho.

El pico, fuerte y ganchudo y las temibles garras, con uñas afiladas de hasta 8 cm de longitud, delatan enseguida sus hábitos de cazador, aunque cuando escasean las presas recurre a la carroña.

El **Águila Real** anida en acantilados de montaña, rara vez en árboles. Con frecuencia, elige la base de algún raquíto arbolillo de los que crecen, tortuosos, ancladas sus raíces en alguna grieta del acantilado rocoso, para asentar allí la estructura de ramas y palos que luego forra con hierbas, musgo y ramaje verde.

Construye varios nidos, dentro de su territorio, que va utilizando alternativamente en años sucesivos. Pone dos huevos pero, en general, solo uno de los pollos sale adelante.



#### Arrano beltza (Águila Real)

##### *Aquila chrysaëtos*

75 eta 88 cm bitartean izan ohi da luze, eta 204 eta 220 cm bitartean, zabal.

Gaztarroan hara eta hona ibiltzen bada ere, espezie sedentarioa da, berez.

Helduak arre kolore uniformekoak dira, eta urre-tonuko burua eta garondoa dituzte. Gazteek orban zuri handiak dituzte hegoetan eta buztanean; hegan egiten dutenean, oso nabarmenak dira, baina, adinean aurrera egin ahala, desagertu egiten dira. Beste harrapakin batzuen antzera, emea arra baino handiagoa da.

Moko indartsu eta gakodunak eta 8 cm luze izan daitezkeen azkazalak dituzten atzaparrek ezinbestean ohartarazten digute ehiztari peto-peto bat dela. Dena den, harrapakinak urri direnean, sarraskia jatera jotzen du.

**Arrano beltzak** mendiko labarretan jartzen du habia; oso gutxitan zuhaitzetan. Harritzko labarretako pitzaduraren batean sartuta, modu okerrean hazi ohi diren zuhaixka meharren baten oinarria hautatu ohi du, eta han jartzen du adarrez eta makilez osatutako egitura bat.

Egitura hori, gero, belarrez, goroldioz eta adar berdez estaltzen du. Hainbat habi egiten ditu bere lurraldearen barruan, eta txandaka erabiltzen ditu hurrengo urteetan. Bi arrautza erruten ditu, baina, normalean, txita bakarrak bizirauten du.



## RAPACES DIURNAS

### ÁGUILA REAL





## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### ARRANO BELTZA

El tipo de presas que captura el **Águila Real** varía según las disponibilidades de cada región, pero prefiere las de tamaño relativamente pequeño: conejos, ratas, ardillas, palomas, mirlos, lagartos, etc. Corren numerosas leyendas sobre águilas que se llevan ovejas, cabras y presas aun mayores, lo que es una exageración pues es incapaz de levantar el vuelo con una presa que supere su propio peso (5 kg en los ejemplares mayores).

Normalmente no transporta pesos superiores al kilo.

De porte elegante, fiero y altivo, ha hecho que la figura del **Águila Real** sea muy utilizada en heráldica.

Es el Arrano Beltza, emblema de los reyes de Navarra.

En la Comunidad Autónoma Vasca y Navarra, aunque ausente de la vertiente atlántica, nidifican cerca de 40 parejas de **Águila Real**.

Si bien está catalogada como amenazada, en las últimas décadas su población se mantiene o incluso crece ligeramente.

Arrano beltzak ehizatzen dituen harrapakinak desberdinak dira eskualde bakoitzaren baliabideen arabera. Dena den, harrapakin txikiak nahiago ditu, besteak beste: untxiak, arratoiak, urtxintxak, usoak, zozoak, muskerrak eta abar. Sarri entzuten dira ardiak, ahuntzak edo are harrapakin handiagoak harrapatzen dituzten arranoei buruzko istorioak. Horiek, baina, gezurra dira. Izan ere, ezin ditu hegan eraman bere pisua gainditzen duten animaliak (arrano helduek 5kg jaso ditzakete, gehienez). Gehienetan ez ditu kilo batetik gorako pisuak garraiatzen.

Jokabide dotorea, basatia eta harroa duenez, **arrano beltzaren** irudia sarri erabili da heraldikan. Hain zuzen, arrano beltza da Nafarroako errege-erreginen ikurra.

Isurialde atlantikoan ezin aurki badaiteke ere, arrano beltzaren 40 bikotek egiten dute habia Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan. Mehatxatu gisa katalogatuta badago ere, azken hamarkadetan, arrano beltzen kopurua mantendu egin da, eta, taldea handitu ere egin da gehixeago.





Águila Real









## RAPACES DIURNAS

ÁGUILA-AZOR PERDICERA





## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### BONELLI ARRANOA



#### Águila-Azor Perdicera (Bonelli Arranoa) *Hieraëtus fasciatus*

Tiene de 65 a 75 cm de talla y entre 150 y 170 cm de envergadura. Es sedentaria. En Europa sólo ocupa, además de la Península Ibérica, una pequeña zona del sur de Francia, Italia, Grecia, Albania e islas del Mediterráneo.

Es una especie ligada al paisaje seco, árido, del piso de colinas y montaña baja del dominio mediterráneo o submediterráneo. Montañas con roquedos escarpados y laderas soleadas, con carrascas, achaparradas coscojas o un tupido maquis impenetrable.



#### Bonelli arranoa (Águila-Azor Perdicera) *Hieraëtus fasciatus*

65 eta 75 cm bitartean izan ohi da luze, eta 150 eta 170 cm bitartean, zabal. Hegazti sedentarioa da. European, Iberiar Penintsulaz gain, Frantzia hegoaldeko eremu txiki batean, Italian, Grezian, Albanian eta Mediterraneoko irletan soilik bizi da. Paisaia lehor eta idorrari eta eremu mediterranearedo azpimediterranearreko muino eta mendi txikiei lotutako espeziea da. Haitz malkartsu eta mendi-hegal eguzkitsuetan aurki daiteke, kaskarrak, abaritz koskorak edo maki itxia inguruan dituztela.

## RAPACES DIURNAS

### ÁGUILA-AZOR PERDICERA



El **Águila-Azor Perdicera** es una de las rapaces más escasas de Euskal Herria. En gravísimo riesgo de desaparición, menos de cuatro parejas mantienen territorios de cría en nuestro ámbito.

La dramática tendencia que sufre la especie concuerda con la pauta general de retroceso en toda su área de distribución, condicionada quizá por la falta de presas y mortalidad de jóvenes y adultos electrocutándose o colisionando con tendidos eléctricos.

La conservación de la especie pasa, además de por su protección a ultranza, por la adopción de planes activos de recuperación, tal y como se contempla en los respectivos catálogos de especies amenazadas.

La mayoría se hallan distribuidas por roquedos de las sierras de la zona media, muy dispersas, una pareja aquí y otra allí, faltando en muchos enclaves que parecen reunir condiciones apropiadas para la especie. Hay alguna otra pareja establecida más al sur bordeando la Ribera. Es desconocida en la cornisa cantábrica, y tampoco sube al Pirineo. Instala el nido en grietas, orificios y repisas de paredones rocosos en foces y peñas, a veces, aprovechando el apoyo que le ofrece la base de alguna tortuosa encina anclada en la roca; lo construye amontonando palos y ramas verdes, con hojas, de encina, boj, pino u otros perennifolios.

**Bonelli arranoa** Euskal Herriko hegazti harraparirik urrienetakoa da. Desagertzeko oso arrisku larrian dago, eta lau bikote baino gutxiago umatzen dira gure artean.

Espezieak Euskal Herrian duen joera larri hori bat dator banaketa-eremu guztian, oro har, duen atzera egiteko joerarekin. Joera horren arrazoi nagusiak, antza, harrapakin-falta eta ale gazte eta helduen hilezkortasun-tasa handia dira. Izan ere, elektrokutatuta edo linea elektrikoarekin talka egiteagatik hiltzen dira. Espeziea kontserbatzeko, ezinbestekoa da babes zorrotza ematea, eta, aldi berean, berreskuratze-plan aktiboak aurrera eramatea, mehatxatutako espezieei buruzko katalogoetan azaltzen den moduan.

Ale gehienak erdialdeko eremuko harkaitzetan sakabanatuta bizi dira. Bikoteak oso aldenduta bizi da elkarrengandik. Halaber, espeziearentzat baldintza egokiak dituzten leku askotan falta dira. Hegoalderago, Erriberako mugan, beste bikoteren bat ere bizi da. Bonelli arranoa ez da Kantauri isurialdean bizi, eta Pirinioetara ere ez da iristen. Arroiletako eta haitzetako harrizko paretetako pitzadura, zulo eta erlaitzetan jartzen du habia. Batzuetan, harrian sartutako arte bihurriren baten oinarria erabiltzen du. Habia makilez eta adar berdez egiten du, arteen, ezpelen, pinuen edo beste zuhaitz hostoiraunkor batzuen hostoak aukeratuz.

## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### BONELLI ARRANOA

Ya hemos dicho que el **Águila-Azor** *Perdicera* es especie sedentaria, que no abandona el territorio en que se halla instalada, pero los jóvenes, una vez emancipados de sus padres, suelen dispersarse, llevando, al menos durante su primer año de vida y quizá hasta alcanzar la madurez, una vida errática. Durante este período pueden aparecer en zonas no habituales, pero rara vez alejadas del área mediterránea.

Azaldu dugu, dagoeneko, **Bonelli arranoa** espezie sedentarioa dela, eta ez duela bere bizilekua uzten. Dena den, ale gazteak, gurasoengandik bereiztean, aldendu egiten dira eta noraezean ibiltzen dira, urtebetez behintzat, eta, batzuetan, heldutasunera heldu arte. Denbora-tarte horretan zehar ez-ohiko eremuetan ager daitezke, baina oso zaila da eremu mediterranearetik kanpo ikustea.





## RAPACES DIURNAS

### ÁGUILA-AZOR PERDICERA



## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### BONELLI ARRANO

El **Águila-Azor** **Perdicera** hace una puesta, muy temprana, hacia fin de febrero o marzo, de dos huevos –rara vez uno solo– de color blanco sucio. Incuba la hembra durante unos cuarenta días. Los pollos vuelan hacia junio, después de un par de meses de estancia en el nido.

No es tan fuerte como el Águila Real, pero siendo más ágil, es una cazadora formidable. Prospecta el terreno recorriendo colinas y laderas en vuelo planeando para, una vez avistada la presa, lanzarse sobre ella en un picado vertiginoso. Captura vertebrados de la talla de la liebre o menores, sobre todo aves y mamíferos: conejos, ratas, ardillas, palomas, perdices, mirlos, alondras y pajarillos, y también algunos reptiles como el Lagarto Ocelado y culebras. Parece que, como para otras grandes rapaces ibéricas, el conejo era una de sus presas más frecuentes y que desde la aparición de la mixomatosis, que diezmó las poblaciones de esta especie, ha aumentado su tendencia a la captura de lagartos, chovas, grajillas y otras presas a las que antes no prestaba tanta atención.

**Bonelli arranoak** errunaldi bakarra egiten du, oso goiz, zehazki, otsailaren bukaeran edo martxoaren hasiera aldera. Kolore zuri zikineko bi arrautza erruten ditu (arraroa da bakarra errutea). Emea 40 egunez txitatzen da, gutxi gorabehera. Txitak ekaina aldera hasten dira hegan egiten, habian hilabete pare bat igaro ondoren.

Ez da arrano beltza bezain indartsua, baina, bizkorragoa denez, ehiztari bikaina da. Lurrari behatzen dio, muino eta mendi-hegalak planeatuz zeharkatuta, eta, harrapakina ikusiz gero, oso azkar erortzen da haren gainera. Erbien tamainako ornodunak edo txikiagoak harrapatzen ditu; batez ere, hegazti eta ugaztun hauek: untxiak, arratoiak, urtxintxak, usoak, eperrak, zozoak, hegatzabalak eta txoritxoak. Halaber, narrastiak ehizatzen ditu, esaterako, gardatxoak eta sugeak. Badirudi, Iberiar Penintsulako harrapari handien antzera, Bonelli arranoaren harrapakinik ohikoena untxia zela. Baina, mixomatosiak espezie hori murriztu zuenetik, lehenago deigarriak gertatzen ez zitzaizkion harrapakinak ehizatzeke joera gero eta handiagoa du, adibidez: muskerrak, belatxingak eta bele txikiak.





## RAPACES DIURNAS

### AGUILILLA CALZADA





## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### ARRANO TXIKIA

#### Aguililla Calzada (Arrano Txikia)

##### *Hieraetus pennatus*

Su talla es de 45-55 cm y 110 -135 de envergadura.  
Su presencia en nuestro País es estival; llega entre finales de marzo a abril y se va a partir de setiembre.  
Inverna en el África Oriental.

Es el águila más pequeña de Europa: tiene el tamaño de un Busardo Ratonero, con el que puede confundirsele, pero su silueta de vuelo es más esbelta, y sus alas y, sobre todo, su cola son más estrechas y largas. Esta águila existe en dos tipos o fases, una clara y otra oscura.  
La fase clara tiene la parte inferior del cuerpo y mitad anterior de las alas blancas, con pecho y vientre listados.  
La fase oscura está uniformemente coloreada en pardo oscuro.


En Europa Occidental ocupa la Península Ibérica más una pequeña población establecida en Francia.  
En Euskal Herria es la zona media la que mejor le va, aunque hay algunas parejas aisladas en la vertiente cantábrica y algunas más en las escasas zonas arboladas del área seca.  
No sube en altura, prefiriendo bosques de zonas bajas y montaña media.

Cría, en general, en árboles pero en donde faltan o escasean puede hacerlo en rocas. Su hábitat preferido parece ser el bosque con manchas de matorral, claros, landa o pastizal, y calveros salpicados.

Pone 1-2 huevos blanquecinos.

Nacen los pollos a partir de los 30 días y vuelan hacia los 40 de estancia en el nido.

Buena cazadora que no desdeña ningún tipo de presas que se ajusten a sus posibilidades: roedores, conejos, comadreja y otros pequeños mamíferos, pajarillos, otras aves hasta el tamaño de una paloma, lagartos y otros reptiles.



#### Arrano txikia (Aguililla Calzada)

##### *Hieraetus pennatus*

45 eta 55 cm bitartean izan ohi da luze, eta 110 eta 135 cm bitartean, zabal. Udan ikus daiteke Euskal Herrian. Izan ere, martxoaren bukaera edo apirila aldera iritsi, eta irailetik aurrera alde egiten du. Afrika ekialdean igarotzen du negua.

Europako arranorik txikiena da. Zapelatz arruntaren tamaina du, eta sarri nahasi egiten da espezie horrekin.

Dena den, hegaldi-silueta lirainagoa du, eta haren hegoak, eta, batez ere, buztana estuagoak eta luzeagoak dira.

Arrano txikiaren bi mota bereiz daitezke: argia eta iluna.

Argiaren gorputzaren azpiko alde eta hegoen aurrealdeko erdia zuriak dira, eta zerrendak ditu bularraldean eta sabelean.

Mota ilunak, berriz, gorputz osoa du arre ilun kolorekoa.

Mendebaldeko Europaren barruan, Iberiar Penintsulan aurki daiteke, baina, Frantzian ere, ale gutxi batzuk bizi dira.

Euskal Herriari dagokionez, erdialdeko eremua da harentzat egokiena. Dena den, bikote isolatu batzuk aurki daitezke

Kantauriko isurialdean eta eremu lehorreko zuhaitzi urrietan. Ez da garaiera handiko gunetan kokatzen; nahiago ditu guneko baxuetako basoak eta mendi ertainak.

Oro har, zuhaitzetan umatzen da, baina, zuhaitzik ez dagoenean, harkaitzetan ere uma daiteke.

Haren habitat gogokenak sastraka-arrastoak, otalurrak, belardiak eta sakabanatutako soilguneak dituzten basoak dira.

Arrautza zurixka bat edo bi erruten ditu.

Habian ezarri eta 30 egunera jaiotzen dira txitak, eta 40 egun inguru igarota hasten dira hegan egiten.

Ehiztari trebea da eta atzeman dezakeen edozein harrapakin jaten du: karraskariak, untxiak, erbinudeak, beste ugaztun txiki batzuk, txoritxoak, usoaren tamainara bitarteko hegaztiak, muskerrak eta bestelako narrastiak.

## RAPACES DIURNAS

### CULEBRERA EUROPEA

#### Culebrera Europea (Arrano Sugezalea)

##### *Circaetus gallicus*

Tiene entre 63 y 70 cm de talla y 155-160 de envergadura. Es de presencia estival; llega en marzo y suele irse hacia setiembre-octubre. Por su tipo de alimentación esta especie se distribuye por áreas geográficas de veranos cálidos, con buena insolación y en las que no falten terrenos despejados incultos, condiciones apropiadas para que exista una herpetofauna rica.

En Euskal Herria está bien representada, sin que llegue a ser abundante, en las sierras y piso de colinas del dominio mediterráneo y zonas de transición con los dominios pirenaico y cantábrico. Sólo se localiza alguna pareja aislada en la zona cantábrica. En el Pirineo no sube en altura como nidificante, aunque puede utilizar como territorios de caza, pastizales y pedreras situadas por encima del piso arbolado.

Suele anidar en árboles; de preferencia en los de hoja persistente, bien planifolios -encinas y carrascas— o aciculifolios—pinos. Hace un nido de palos en la cima o en ramas despejadas. Pone un solo huevo, blanco y muy grande. Nace el pollo hacia los 45 días y vuela unos dos meses y medio más tarde.

Esta rapaz está especializada en la captura de reptiles, que constituyen la mayor parte de su alimentación. No teme atacar a las venenosas víboras ni a culebras de tamaño considerable, como la bastarda o de escalera. Su técnica de caza consiste en sobrevolar terrenos despejados -landa pastizales, pedreras, etc- para sorprender en ellas a los reptiles que se calientan al sol. De vez en cuando se detiene en el aire como colgada del cielo, en un vuelo estático característico de la especie: cara al viento, regula el ángulo de incidencia y la superficie de alas y cola, y solo bate las alas con un movimiento rotatorio peculiar, cuando para el viento.



#### Arrano sugezalea (Culebrera Europea)

##### *Circaetus gallicus*

63 eta 70 cm bitartean izan ohi da luze, eta 155 eta 160 cm bitartean, zabal. Udan ikus daiteke Euskal Herrian. Martxoan aldera iritsi, eta iraila edo urria aldera joaten da. Haren elikadura-mota dela medio, espezie hori uda beroko eremu geografikoetan bizi da. Eremu horiek ongi eguzkituta egon behar dute, eta gunek irekiak izan behar dituzte; hitz batean, herpetofauna aberatsa bermatzeko baldintzak bete behar dituzte. Euskal Herrian, ez da oso ugaria, baina nahiko zabalduta dago eremu mediterranearreko mendi eta muinoetan, eta Pirinioetako eremuaren eta Kantauriko eremuaren arteko trantsizio-guneetan. Kantauriko eremuan, berriz, bikote isolaturen bat baino ez dago. Pirinioei dagokienez, habiak eremu altuetan egiten ez baditu ere, zuhaitzetatik gora dauden belardi edo harritzetan ehiza dezake. Habiak zuhaitzetan egin ohi ditu, eta nahiago ditu hosto iraunkorrekoak: hala hostozabalekoak (arteak eta karraskak), nola orratz-formako hostodunak (pinuak). Habia makilez egiten du zuhaitzaren zatirik garaienean edo adar zabaletan. Arrautza bakarra erruten du, zuria eta oso handia. Txita 45 egunera jaiotzen da, eta handik bi hilabete eta erdira hasten da hegan. Hegazti harrapari horrek narrastiak ehizatzen ditu, bereziki. Izan ere, haren elikadura-iturri nagusia dira. Ez da kikiltzen sugedorri pozoitsuak edo Montpellierko sugea edo eskailera-sugearen moduko narrasti handiei erasotzeko orduan. Ehizatzerak ateratzen denean, eremu irekiak (otalurrak, belardiak, harritzak eta abar) zeharkatzen ditu, eguzkitan berotzen ari diren narrastiak ustekabean harrapatzeko. Batzuetan, airean gelditu egiten da, zerutik zintzilikatuta egongo balitz bezala, espeziearen bereizgarri den hegaldi estatikoan: haizeari begira jartzen da, eragin-eremua eta hegoen eta buztanaren azalera erregulatzen ditu, eta hegoak haizea gelditzen denean soilik mugitzen ditu, mugimendu birakari berezia eginez.



## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### ARRANO SUGEZALEA





## RAPACES DIURNAS

### HALCONES

Los **halcones** son un grupo de rapaces diurnas adaptadas a la persecución de presas en espacios abiertos. Su estructura y morfología les confiere habilidades para el vuelo batido y potente.

El **Halcón Peregrino** (*Falco peregrinus*), por ejemplo, está considerada el ave más rápida, capaz de alcanzar 300 km/hora en picado. Estrictamente ornitófago (se alimenta de aves), cría en cortados de sierras y acantilados marinos. Aunque padeció un descenso poblacional acusado, en la actualidad se ha recuperado y el número de parejas es aceptable.

El **Alcotán Europeo** (*Falco subbuteo*), halconcillo migrador de distribución irregular en nuestro territorio, que se alimenta de pájaros y grandes insectos voladores. Ubica sus nidos en plataformas abandonadas de córvidos u otras rapaces.

El **Cernícalo Vulgar** (*Falco tinnunculus*), el más extendido, abundante y ubicuo de los halcones, El **Cernícalo Primilla** (*Falco naumanni*), especie parecida de distribución mediterránea. En Navarra pueden criar contadísimas parejas.

El **Esmerejón** (*Falco columbarius*), el más pequeño de todos, nidificante en la tundra y área norteamericana, pero que como buen migrador nos visita regularmente en otoño e invierno. Contemplar sus obstinadas persecuciones a los pajarillos constituye todo un espectáculo.



Halcón Peregrino  
Belatz handia



Cernícalo Vulgar  
Belatz Gorria

**Belatzak** eguneko harrapari-multzoan daude, eta harrapakinak esparru irekietan atzematera egokitu dira. Haien egitura eta morfologia direla medio, hegaldi astindua eta indartsua dute.

**Belatz handia** (*Falco peregrinus*), esaterako, hegaztirik azkarrena dela jotzen da, eta 300 km/h-ra irits daiteke gainbehera bizian amiltzen denean. Ornitófagoa da, hau da, hegaztiak soilik jaten ditu, eta mendietako ertzetan eta itsaslabarretan umatzen da. Garai batean atzera nabarmen egin bazuen ere, egun, berreskuratu egin da, eta bikote-kopuru nahiko handia dago.

**Zuhaitz-belatza** (*Falco subbuteo*) ere da talde horretako beste espeziea. Belatz txikia da, migratzailea, eta modu irregularrean banatuta dago Euskal Herrian. Txoriak eta intsektu hegalaria handiak jaten ditu. Korbidoek edo beste harrapari batzuek bertan behera utzitako plataformetan jartzen ditu habiak.


**Belatz gorria** (*Falco tinnunculus*) da belatzik zabalduena eta ugariena; nonahi aurki daiteke.

**Naumann belatzaren** (*Falco naumanni*) bikote urri batzuk uma daitezke Nafarroan. Antzekoa da, eta eremu mediterranean bizi da. Azkenik.

**Belatz txikia** (*Falco columbarius*) dugu. Taldeko txikiena da, eta tundran eta Europa iparraldeko lurraldeetan egiten du habia. Dena den, migratzailea da, eta udazken eta negu guztietan etortzen da Euskal Herrira. Ikuskizun paregabea da txoritxoei modu tematsuan nola jarraitzen dien ikustea.

## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### BELATZAK



Hembra  
de Cernícalo Vulgar  
Belatz Gorriaren emea



## RAPACES DIURNAS

### HALCÓN PEREGRINO





## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### BELATZ HANDIA

#### Halcón Peregrino (Belatz Handia)

##### *Falco peregrinus*

La destreza y rapidez de esta especie para la captura de presas en el aire la convirtió, ya desde la época medieval, en la preferida para el vuelo de altanería, la modalidad reina de la caza de cetrería.

Paradójicamente, la revitalización de esta práctica pudo en algún momento poner en peligro a las poblaciones de halcones, al surtirce cetreros y aficionados a partir del expolio de pollos de halcones en sus nidos.

Aunque estos hechos no se han erradicado totalmente, hoy en día es imprescindible que la pervivencia de una práctica tan ancestral y atractiva se haga sólo a expensas de aves reproducidas en cautividad.

Paralelamente, el **Halcón Peregrino** nos ofrece uno de los ejemplos mejor descritos de efectos perniciosos de los pesticidas sobre el medio ambiente.

Durante los años 50 y 60, las poblaciones europeas y americanas de la especie sufrieron importantes descensos, hasta situarlas al borde de la desaparición, como consecuencia de la acumulación de tóxicos en sus tejidos, que afectaban a su capacidad reproductiva.

Esta situación se originó por el uso masivo de insecticidas de tipo organoclorado para combatir las plagas de insectos que perjudicaban a la producción agrícola.

Lamentablemente, los venenos no desaparecían, sino que se incorporaban a la cadena trófica acumulándose progresivamente y alcanzando niveles subletales en los escalones más altos, en este caso el de los depredadores. Las restricciones en el empleo de esa clase de pesticidas han permitido la recuperación de los halcones.



#### Belatz Handia (Halcón Peregrino)

##### *Falco peregrinus*

Hegazti horrek harrapakinak airean atzemateko dituen trebeziak eta abiadurak *altanería* praktikatzeko espezierik gogokenetakoa bilakatu zuten Erdi Arotik bertatik hasita. Hain zuzen, *altanería* da falkoneria-ehizako modalitatearik ikusgarriena. Paradoxikoa badirudi ere, jarduera horren biziberritzea belatz-populazioak arriskuan jartzera iritsi zen uneren batean, falkoneriazaleek habietatik hartzen baitzituzten belatzen txitak, gero jarduera horretan erabiltzeko. Gertaera horiek erabat desagertu ez badira ere, gaur egun, gehiengoak ulertu egin du jarduera zahar bezain erakargarri hori mantentzeko ezinbestekoa dela itxian hazitako hegaztiak soilik erabiltzea.

Bestalde, **belatz handiak** pestizidek ingurumenari eragiten dioten kalte larriaren adibide garbienetakoa dira. Aurreko mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan Europako eta Ameriketako aleen kopurua nabarmen murriztu zen, eta desagertzeko zorian egon ziren, substantzia toxikoak beren ehunetan metatzen zirelako eta horrek ugaltzeko ahalmenari eragiten ziolako. Nekazaritza-ekoizpenari k alte egiten zioten intsektu-izurriteei aurre egiteko intsektizida organokloratuak modu masiboan erabili izanaren ondorioz sortu zen arazo hori. Pozoiak, tamalez, ez ziren desagertzen. Aitzitik, kate trofikoan txertatzen ziren modu progresiboan eta efektu subletalak eragiten zituzten maila altuenetan, kasu honetan, bada, harrapariengan.

Dena den, pestizida horiek erabiltzeko ezarri diren murrizketei esker, belatzen kopurua lehengoratu egin da.

## RAPACES DIURNAS

### CERNÍCALO VULGAR

#### Cernícalo vulgar (Belatz Gorria)

##### *Falco tinnunculus*

Su talla es de unos 34 cm.

Esta pequeña falcónida, común en toda Europa, es una ubiquista que cría lo mismo en acantilados costeros que en roquedos de montaña, en árboles (aprovechando en este caso viejos nidos de otras aves, en general córvidos) e, incluso, en edificios de la periferia urbana. Para cazar prefiere el campo abierto.

De tonalidad castaña con motas o listas oscuras por encima y ocráceo con motas negras en las partes inferiores, se diferencian ambos sexos por tener el macho cabeza y cola grises, con ancha banda negra hacia el extremo de éste. La silueta típica de halcón se caracteriza por: alas puntiagudas y finas, cola larga y delgada. Es característica su forma de cernirse: fijo en el aire, con la cola desplegada en abanico y un rápido batir de alas.

Es sedentario en el País Vasco, y recibimos, además, una importante masa de invernantes.

Su alimentación a base de ratones, topillos, etc., hace que sea beneficioso para la agricultura.



#### Belatz gorria (Cernícalo vulgar)

##### *Falco tinnunculus*

34 cm inguru neurtzen ditu.

Belatz txiki hori Europa osoan bizi da, eta itsaslabarretan, mendiko harkaitzetan, zuhaitzetan (beste hegazti batzuen habi zaharrak erabiltzen ditu; kobidoenak, gehienbat) edo are hiri-ingurumarietako eraikinetan uma daiteke.

Dena den, landa zabala nahiago du ehizatzeke.

Gaztaina-koloreko gainaldea du, orban edo zerrenda ilunekin; azpiko aldea, berriz, gorri-horixka du, orban beltzekin.

Sexuen arteko desberdintasuna zera da: arrak buru eta buztan grisak dituela, eta marra beltz zabala duela buztanaren muturreraino. Belatzaren siluetaren bereizgarriak dira: batetik, hego zorrotzak eta finak; eta, bestetik, buztan luzea eta estua. Hegoak mugitzeko modu berezia du: airean finko geratzen da, buztana abaniko baten gisara zabalduz, eta hegoak oso azkar astinduz.

Sedentarioa da Euskal Herrian, eta, gainera, belatz gorri mordoa iristen da negua gure artean igarotzera. Saguak, lursaguak eta abar jaten ditu, nagusiki, eta, horregatik, eragin onuragarria du nekazaritzan.



Hembra de Cernícalo Vulgar

Belatz Gorriaren emea



## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

BELATZ GORRIA





## RAPACES DIURNAS

### ALIMOCHES



Alimoche Común.  
Suele instalar el nido  
en cuevecillas del roquedo.

Sai zuria.  
Harkaitzeko kobazulo  
txikietan jarri ohi du habia.



Alimoche Común  
en plumaje juvenil

Sai zuriaren gaztetako lumak

## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### SAI ZURIA

#### Alimoche Común (Saizuria)

##### *Neophron percnopterus*

Su talla es de 60-70 cm;  
y su envergadura de 145-180 cm  
y puede tener 2 kg de peso.

Migrador que abandona  
el área de cría a fines de verano  
para invernar al sur del Sahara,  
en una banda que va de Senegal a Etiopía.  
En primavera regresa a Europa, llegando a la zona pirenaica  
hacia la segunda mitad de marzo, para establecerse en foces  
y gargantas, desfiladeros y paredes rocosas que presenten  
grietas apropiadas para emplazar el nido.

El Alimoche Común adulto es fácilmente reconocible  
por el colorido de su plumaje, totalmente blanco  
salvo el extremo y mitad posterior de las alas que son negras.  
De cerca puede apreciarse que tiene la cabeza y garganta  
calvas, sin plumas, cubiertas por una piel amarilla.  
Los jóvenes del año son de color pardo oscuro uniforme,  
que se va aclarando con la edad, hasta que alcanza el plumaje  
de adulto hacia su 3º ó 4º año de vida, al mismo tiempo  
que la madurez sexual. Durante esta primera etapa de su vida  
permanece en África.



#### Sai zuria (Alimoche Común)

##### *Neophron percnopterus*

60-70 cm inguru luze  
eta 145-180 cm inguru zabal da,  
eta 2 kg pisa ditzake.

Migratzailea da, eta, umatzeko tokietatik,  
uda bukatzen denean alde egiten du,  
eta negua Sahararen hegoaldera igarotzen du,  
Senegaletik Etiopiaraino hedatzen den zerrendan.  
Udaberrian, Europara itzultzen da, eta martxoaren erdialdean  
iristen da Pirinioetara. Arroila, haitzarte eta harkaitzetan  
kokatzen da, eta hango pitzaduretan jartzen du habia.

Erraza da sai zuriari bere lumen kolorearengatik antzematea.  
Izan ere, erabat zuria da, hegoen mutur eta atzeko erdi beltza  
salbu. Hurbilagotik behatuta, ikus daiteke buruan eta zintzurrean  
ez duela lumarik, eta azal hori batez estalita dauzkala.  
Dagokion urteko ale gazteak arre kolore uniformekoak dira,  
eta, hazi ahala, lumak argitu egiten zaizkie, hiru edo lau urte  
betetzen dituztenera arte. Orduan, helduen lumak agertzen  
zaizkie, eta heldutasun sexuala erdiesten dute.  
Lehenengo urte horietan, Afrikan bizi da.

## RAPACES DIURNAS

### ALIMOCHE

No es sociable durante la época de cría, estableciéndose en parejas aisladas, pero en migración e invernada pueden observarse grupos más o menos numerosos merodeando por basureros, muladares u otros lugares en los que abunden desperdicios entre los que busca restos de comida. Es capaz de comer casi cualquier cosa, desde excrementos a pequeños vertebrados, moluscos e insectos. Suele mantenerse alrededor de los grupos de buitres que se afanan sobre una carroña, a la espera de atrapar alguna migaja que se escape a la voracidad de éstos.

Como nota curiosa se apunta que es capaz de valerse de una piedra, que maneja con el pico, para romper la cáscara de los huevos de avestruz.

Pone un par de huevos pero normalmente, sólo un pollo llega a volar del nido.

Umatzen den bitartean, ez du harremanik izaten espezieko beste kideekin, eta bikote isolatuetan bizi da. Baina migrazio-garaian edo negualdian, talde nahiko handiak ikus daitezke zabortegien, animalia-hondakindegien edo hondakinez betetako bestelako tokien inguruan, janari-arrastoen bila. Ia edozein gauza jan dezake, gorotzetatik hasi eta ornodun txiki, molusku edo intsektuetaraino. Sarraskiak irensten ari diren bestelako sai-taldeen inguruan egon ohi da, horiek utz dezaketen hondarren bat jateko zain. Bitxikeria gisa esan ohi da harri bati esker (mokoarekin erabilita) ostruken arrautzen oskola apur dezakeela. Arrautza pare bat errun ohi du, baina txita bakarrak bizirauten du.





## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### SAI ZURIA

El **Alimoche Común** es una especie, como otras carroñeras, muy sensible a la utilización ilegal de venenos para combatir depredadores o plagas. Aunque no existen datos totalmente concluyentes, el número de parejas podría permanecer estable en los últimos tiempos: unas 140 en Navarra y otras 40 en la Comunidad Autónoma Vasca. El Alimoche Común, “la dama blanca del camino de los bueyes” según el apodo de los pastores labortanos, está, como otras rapaces, incluida en los catálogos de especies anenazadas y goza de protección estricta. No obstante, el riesgo de empleo incontrolado de venenos –insistiremos en el grave peligro que entraña para la fauna– supone una preocupación.

**Sai zuriari** ere, beste sarraskijaleei bezala, kalte handia egiten diote harrapari edo izurritei aurre egiteko modu ilegalean erabiltzen diren pozoiek. Behin betiko daturik ez badago ere, uste da azken urteetan bikote-kopurua mantendu egin dela: 140 bikote inguru Nafarroan eta 40 bat Euskal Autonomia Erkidegoan. Lapurdiko artzainek «idien bideko dama zuria» deitzen diote sai zuriari, eta, beste harrapakinak bezala, mehatxatutako espezieen katalogoaren barruan sartuta dago eta modu zorrotzean babestuta. Hala eta guztiz ere, pozoiak kontrolik gabe erabiltzeak kezka handia eragiten du. Hala, gogorarazi nahi dugu faunarentzat oso arriskutsua dela.



## RAPACES DIURNAS

### QUEBRANTAHUESOS

#### Quebrantahuesos (Ugatza)

##### *Gypaëtus barbatus*

Tiene una talla de entre 100 y 150 cm;

230 a 280 cm de envergadura y un peso de 5 a 7 kg.

Es sedentario, pero de joven lleva una vida errática hasta que, a los cinco años, alcanza la madurez sexual, se empareja y fija su residencia sobre un vasto territorio, estimado en unos 200 km<sup>2</sup> para las parejas del Pirineo.

El Quebrantahuesos, tan grande como el Buitre Leonado, llama la atención por su esbeltez y la agilidad de su vuelo, sorprendente en un ave de su tamaño.

Las alas largas, estrechas y puntiagudas, la cola también muy larga y cuneiforme, le dan en vuelo cierto parecido a un halcón gigantesco. Visto de cerca, lo que no es fácil, puede apreciarse el vivo color amarillo de sus ojos, rodeados de un anillo rojo, muy llamativo, y la banda negra que, a modo de antifaz, va de los ojos a la base del pico, donde le nace un haz de cerdas, largas y rígidas que recuerdan un bigote.

Cría en agujeros y grietas profundas de roquedos de montaña, en voluminoso nido de ramas y palos forrado con abundante lana de oveja. Pone dos huevos pero solo saca adelante un pollo. Básicamente se alimenta de carroña, constituyendo los huesos una parte importante de su dieta; para procurárselos visita las carroñas después que los buitres han limpiado de carne la carcasa y va tragando los más pequeños. Los huesos grandes los toma en sus garras y, elevándose, los deja caer sobre una peña para que se fragmenten.

Es una de las joyas ornitológicas del Pirineo, donde se hallan establecidas unas 35 de las 75-90 últimas parejas que se calcula quedan en Europa.

El resto se reparten entre las montañas de la isla de Córcega, Grecia y la cordillera del Cáucaso. Una población tan reducida corre, evidentemente, un riesgo gravísimo de extinción por lo que cuantas medidas se tomen para protegerla parecen pocas. Dentro de los límites de Navarra crían tres parejas.

La gran regresión poblacional del Quebrantahuesos, que hasta principios de siglo criaba en otros montes vascos, como Sierra Salvada, Urkiola y Aitzgorri, se debió tanto a la persecución directa de que fue objeto, como a la colocación de venenos destinados a depredadores. Su baja tasa reproductiva condiciona el que supla con dificultad la mortalidad de aves adultas, por lo que hoy en día, se considera a los tendidos eléctricos como elementos peligrosos de cara a su conservación, y se promueve el uso de diseños y torretas de menor riesgo. En los últimos años, se han establecido algunos territorios nuevos, y se aprecia una tímida expansión hacia áreas más occidentales, como Aralar.



#### Ugatza (Quebrantahuesos)

##### *Gypaëtus barbatus*

100-150 cm inguru luze

eta 230-280 cm inguru zabal da,

eta 5 eta 7 kg artean pisatzen ditu. Sedentarioa da, baina, gaztetan, noraezean ibiltzen da, 5 urte bete eta heldutasun sexuala erdiesten duenera arte.

Orduan, bikotekidea aurkitu eta lurralde handi batean ezartzen du bizigunea. Lurralde horrek 200 km<sup>2</sup> izan ditzake Pirinioetako bikoteen kasuan.

Ugatza sai arrea bezain handia da, eta, hain handia izanda, deigarriak gertatzen dira hegan egitean dituen liraintasuna eta bizkortasuna. Hego luze, estu eta zorrotzek, batetik, eta buztan luze eta kuneiformeak, bestetik, belatz erraldoiaren itxura ematen diote hegan egiten duenean.

Gertutik ikustea ez da erraza, baina orduan ikus daitezke hori kolore biziko begiak, inguruan eraztun gorri oso deigarria dutela, eta moztur baten gisara begietatik mokoaren hasieraraino duen banda beltza. Mokoan, halaber, bibotea gogorarazten diguten zurdak luze eta zurrinak ditu.

Mendiko harkaitzeko zulo eta pitzaduretan umatzen da, adar eta makilez egindako eta artilez estalitako habi handietan. Bi arrautza erruten ditu, baina bakarra ateratzen da aurrera. Batez ere, sarraskiaz elikatzen da, eta hezurak haren elikaduraren zati garrantzitsua dira. Horiek lortzeko, saiek haragia hezurretatik kendu eta gero jotzen du sarrasketara, eta hezur txikiak irensten hasten da. Hezur handiak, berriak, atzaparretan hartu, apur bat gora egin, eta harkaitzen kontra botatzen ditu, apurtu daitezten.

Pirinioetako harribitxi ornitologikoetako bat da, eta, eremu horretan, 35 bikote inguru bizi dira, Europa osoan geratzen diren 75-90 bikoteetatik. Gainerakoak Korsikako eta Greziako mendietan eta Kaukaso mendilerroan bizi dira.

Hain ale gutxi direnez, desagertzeko arrisku larrian daude, eta ahalik eta neurri gehien hartu behar dira espeziea babesteko. Nafarroan, hiru bikotek hazten dituzten beren kumeak.


## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### UGATZA



En vuelo se aprecia  
su cola larga y romboidal.

Hegan egiten duenean, modu argian  
ikus daiteke ugatzaren buztan  
luze eta erronboidea.



Iragan mendearen hasierara arte, ugatza Euskal Herriko beste mendi batzuetan ere umatzen zen, adibidez:

Gorobelen, Urkiolan edo Aizkorrin.

Baina espezieak nabarmen egin zuen atzera,

bai modu zuzenean jazarri zutelako, bai harrapariei

aurre egiteko pozoiak erabiltzen zituztelako.

Ugalkortasun-tasa txikia duenez, zaila da hiltzen diren hegazti

helduak ordezkatzea. Hala, egun, linea elektrikoak

elementu arriskutsutzat jotzen dira espeziea kontserbatzeko,

eta arriskua txikiagoko diseinu eta dorreak erabil daitezen

sustatzen ari da. Azken urteetan, beste eremu batzuetan ere

kokatu dira, eta mendebalderago hedatzeko joera dutela


hauteman daiteke. Esaterako, Aralarren ikus daitezke.





## RAPACES DIURNAS

### BUITRE LEONADO



## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### SAI ARREA

#### Buitre Leonado (Sai Arrea)

##### *Gyps fulvus*

Talla de 100-110 cm;  
240-280 cm de envergadura  
y 6 a 8 kg de peso.

El Buitre Leonado es sedentario de adulto, los jóvenes realizan importantes desplazamientos hacia el sur. Pollos anillados por la Sociedad Aranzadi en colonias del Pirineo han dado recuperaciones en el centro y sur de la Península y norte de África.

Es una especie social, que establece sus colonias en cortados y paredones rocosos con cornisas y plataformas que le ofrezcan posaderos y asiento para los nidos.

Éstos suelen ser rudimentarios, un amasijo de palos, ramas y hierba que va desapareciendo según crece el pollo. Pone un sólo huevo, ya en el mes de febrero, y el pollo no abandona el nido hasta fin de julio.

A pesar de su gran tamaño, el Buitre pasa fácilmente desapercibido cuando se halla posado, pues se mimetiza muy bien sobre el fondo de rocas, pero en vuelo su amplia silueta, un tanto maciza, de alas anchas y largas, con la punta de las rémiges primarias desplegadas y la cola con y cuadrada, se hace visible desde muy lejos. Con mal tiempo suele preferir permanecer posado al abrigo de las rocas, inmóvil, a la espera de que el calor del sol provoque la formación de térmicas ascendentes, que sabe aprovechar con maestría para remontarse, planeando en amplios círculos. Rara vez recurre al vuelo batido pues, para un ave de su peso, esta forma de vuelo exige un gran gasto de energía.

Se alimenta exclusivamente de carroña, que localiza desde el aire con ayuda de su aguda vista y no, como equivocadamente se cree, del olfato, sentido que, como la mayoría de las aves, tiene muy poco desarrollado. Su tipo de alimentación hace que sea un ave estrechamente ligada a la actividad pastoril y ganadera.



#### Sai Arra (Buitre Leonado)

##### *Gyps fulvus*

100-110 cm luze,  
240-280 cm zabal,  
eta 6-8 kg-ko pisua.

Sai arreak sedentarioak dira helduak direnean, baina ale gazteek lekualdatze handiak egiten dituzte hegoalderantz. Esaterako, Aranzadi Zientzia Elkartek eraztunak jarri dizkie Pirinioetako kolonietako hainbat txitari, eta gero ikusi ahal izan dute Iberiar Penintsulako erdialdean eta hegoaldean eta Afrika Iparraldean zeudela.

Espezieko beste kideekin harremanetan bizi da, eta plataformak eta erlaitzak dituzten koloniak harkaitzen ertzetan eta paretetan kokatu ohi dira baldin eta horietan habiak jartzeko tokia badute. Habiak bakunak izan ohi dira; makilak, adarrak eta belarra pilatzen dituzte, eta material horiek desagertu egiten dira txita hazten den heinean.

Arrautza bakarra erruten du otsailean, eta txita uztailaren bukaerara arte geratzen da habian.

Tamaina handia badu ere, zaila da saiari antzematea pausatuta dagoenean. Izan ere, oso ongi mimetizatzen da inguruko arrorekin. Hegan egiten duenean, berriz, silueta nahiko zurruna du: hego zabal eta luzeak, oinarritzko arraun-lumen punta zabalduak eta buztan kona eta karratua; erraza da hura urrunetik ere bereiztea. Eguraldia txarra denean, nahiago du harkaitzen babesean pausatuta geratzea, gelditu eta Eguzkiaren beroak uhin termiko gorakorrek noiz sortuko zain. Izan ere, trebetasun handia du uhin horiek baliatuz hegan egiteko, biribil handietan planeatuz. Gutxitan astintzen ditu hegoak, hain hegazti mardul izanda energia asko baliatu behar bailuke modu horretan hegan egiteko.

Sarraskiaz soilik elikatzen da. Sarraskiaren kokagunea airetik bertatik jotzen du begiz, haren ikusmen bikaina baliatuta. Ez du, bada, nahiz eta uste zabaldua izan, usaimena erabiltzen. Izan ere, hegazti gehienek antzera, usaimena ez dauka batere garatuta. Haren elikadura-mota ikusita, artzaintzari eta abeltzaintzari estuki lotua dagoen hegaztia da.

## RAPACES DIURNAS

### BUITRE LEONADO



En los muladares, enclaves donde se deposita el ganado muerto, pueden reunirse decenas de ejemplares que consumirán en cuestión de minutos la carroña disponible.

Hildako ganadua animalia-hondakindegian uzten da, eta, toki horietan, hamaika sai elkar daitezke, eta hango sarraski guztia jan dezakete minutu gutxi batzuen buruan.





## EGUNEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### SAI ARREA



La población ibérica del **Buitre Leonado** se redujo drásticamente durante la segunda mitad del siglo XX, debido a la persecución de que fue objeto y al uso de venenos para combatir a mamíferos depredadores. Aunque se temió su desaparición, el abandono de las prácticas mencionadas ha permitido en las últimas dos décadas una recuperación que los investigadores califican como espectacular. En los últimos censos efectuados, un total de 2 000 parejas fueron contabilizadas en 63 colonias navarras y 386 en 34 colonias de la Comunidad Autónoma Vasca. Esta población puede considerarse, en la actualidad, fuera de peligro.

Iberiar Penintsulan bizi ziren **sai arreen** kopurua izugarri murriztu zen XX. mendearen bigarren erdian, bai modu zuzenean jazarri zituztelako, bai ugaztun harrapariei aurre egiteko pozoiak erabiltzen zirelako. Desagertuko zela pentsatu bazen ere, aipatutako praktikak alde batera utzi dira, eta, horri esker, espeziea berreskuratu da. Izan ere, ikerlariak ikusgarritzat jo dute berreskuratze hori. Egindako azken errolden arabera, 2.000 bikote zenbatu dira Nafarroako 63 koloniatan, eta 386 bikote, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko 34 koloniatan. Hala, espeziea, egun, arriskutik kanpo dagoela esan dezakegu.





Buitre leonado









GAUEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

RAPACES NOCTURNAS









## RAPACES NOCTURNAS

### LECHUZA COMÚN



## GAUEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### HONTZ ZURIA

#### Lechuza Común (Hontza Zuria)

Tiene una talla unos 34 cm.

Es un ave sedentaria.

Se distribuye por todo el País, tanto en zonas urbanas como campestres. Entre las rapaces nocturnas es la que mejor se ha adaptado a la presencia humana. Se la nota tendencia a establecerse en lugares habitados o sus proximidades. Ocupante habitual, de torres de iglesias, graneros y desvanes, pajares, viejos edificios en ruinas, etc.

Cría en este tipo de edificaciones o en agujeros de viejos troncos, a veces en acantilados.

No construye nido. Pone los huevos —de 4 a 6— sobre sus egagrópilas (masa de pelos, plumas, huesecillos y otros restos no digeribles que regurgitan algunas aves).

Es una activa cazadora de ratas, ratones, topillos y demás micromamíferos, que constituyen la mayor parte de su alimentación. Caza, también, algunos pajarillos, ranas, e insectos. Su labor de control sobre las poblaciones de roedores la convierten en una inestimable ayuda para el hombre. Como tal, se halla estrictamente protegida por la ley.

Es protagonista de viejos cuentos, consejas y leyendas infundadas (como la de que se bebe el aceite de las lámparas de las iglesias), y se ve asociada en la literatura popular a brujas y hechicerías.



#### Hontz zuria (Lechuza Común)

34 cm inguru neurtzen ditu.

Hegazti sedentarioa da.

Euskal Herri osoan bizi da, hala hirietan nola landa-eremuetan.

Gauko harraparien artean, hontz zuria egokitu da hobekien gizakien presentziara. Gizakiak bizi diren tokietan edo horien inguruan kokatzeko joera du.

Sarri aurkitu daiteke elizetako dorreetan, aletegietan, ganbaretan, lastategietan, erortzearen diren eraikin zaharretan eta abarretan.

Mota horretako tokietan, enbor zaharretako zuloetan, eta, batzuetan, labarretan umatzen da.

Ez du habiarik egiten. 4-6 arrautza inguru erruten ditu bere egapropilen gainean (ileez, luez, hezurtxoez eta hegazti batzuek ahotik botatzen dituzten beste hondakin batzuek egindako masa da).

Modu aktiboan ehizatzen ditu arratoiak, saguak eta lursaguak eta bestelako mikrougaztunak, eta horiek dira haren elikadura-iturri nagusia. Halaber, txoritxo batzuk, igelak eta intsektuak ere harrapatzen ditu. Karraskarien kopurua kontrolatzeko duen garrantzia dela medio, funtsezko laguntza ematen diote gizakiari. Hartara, legeak modu zorrotzean babestutako espeziea da.

Elezahar, ipuin eta funsgabeko alegia (esaterako, elizetako kriseiluetako olio edaten duela) frankoren protagonista da, eta betidanik egon da sorginei eta sorginkeriei lotuta herri-literaturan.



## RAPACES NOCTURNAS

### AUTILLO EUROPEO



Lechuza común

[Apo Hontza](#)

## GAUEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### APO HONTZA - AUTILLO EUROPEO



#### Autillo Europeo (Apo Hontza)

##### *Otus scops*

Tiene una talla de unos 19 cm.

Es de presencia estival, aunque quizá pueda haber algún invernante en puntos abrigados de nuestra geografía.

El pequeño tamaño y la vida nocturna de esta especie hacen que su presencia pase desapercibida, la mayoría de las veces, para quienes no conocen su voz, que suena como una nota melancólica parecida al canto de un sapo.

Acostumbra a instalarse en zonas arboladas próximas a lugares habitados: parques, jardines, árboles de bordes de paseos y carreteras, etc. y no es raro verlo, una vez anochecido, capturando los insectos que revolotean alrededor de las luces de las farolas en pueblos y ciudades.

Suele anidar en agujeros de árboles y paredes; a veces en nidos abandonados de otras aves.

Tiene, en la cabeza, los penachos de plumas «orejas» característicos de algunas rapaces nocturnas, lo que le da el aspecto de un búho en miniatura.

#### Apo Hontza (Autillo Europeo)

##### *Otus scops*

19 cm inguru neurtzen ditu.

Udan etortzen da Euskal Herrira, baina, agian, negualdia ere gure artean igarotzen duen aleren bat aurkitu daiteke babestutako eremuren batean.

Oso txikia denez eta gauez bizi denez, gehienetan ez gara haren presentziaz ohartzen, batez ere apoaren kanta gogorarazten duen doinu malenkoniatsuaren moduko haren ulua ezagutzen ez badugu.

Gizakia bizi den tokien inguruko zuhaitzetan kokatu ohi da, besteak beste, parkeetan, lorategietan, pasealeku eta errepideen inguruko zuhaitzetan. Ohikoa da, beraz, ilundu eta gero, herri eta hirietako farolen inguruan dabilzan intsektuak harrapatzen ikustea.

Zuhaitzetako eta paretetako zuloetan jartzen du habia, eta, batzuetan, beste hegazti batzuek bertan behera utzitako habiak erabiltzen ditu.

Luma-gandorrak («belarriak») ditu buruan beste gau-harrapari batzuek bezala, eta miniaturazko hontz baten itxura ematen diote.

Lechuza común  
Apo Hontza





## RAPACES NOCTURNAS

### MOCHUELO EUROPEO



El vuelo de estas aves es sumamente silencioso.

Hegazti horien hegaldia izugarri isila da.



## GAUEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### MOZOLOA

#### Mochuelo Europeo (Mozoloa)

##### *Athene noctua*

Talla 21 cm.

Es sedentario, y está presente en todo el País pero más abundante en la Euskal Herria seca que en la cantábrica, pues prefiere los espacios abiertos a los boscosos.

Le van muy bien las extensiones de cultivo, los eriales pedregosos y los terrenos incultos, siempre que haya algunos árboles dispersos en los que pueda encontrar agujeros para instalar su nido.

A falta de árboles puede anidar en cavidades de muros, rocas y edificios, o aprovechar huras de conejo.

Se deja ver de día con más frecuencia que otras rapaces nocturnas. No es raro sorprenderla en horas de luz posada sobre algún polo roca u otra atalaya despejada, y verla alzar el vuelo a nuestro paso; un vuelo bajo, muy ondulado, con batir de alas intermitente.

Grandes insectos, ratones, musarañas y otros pequeños mamíferos son la base de su dieta, que complementa con algún pajarillo, ranas, lagartos y lagartijas.



#### Mozoloa (Mochuelo Europeo)

##### *Athene noctua*

21 cm neurtzen ditu.

Sedentarioa da eta Euskal Herri osoan bizi da.

Dena den, ohikoagoa da zati lehorrean Kantauriko isurialdean baino, zuhaitzien ordezt esparru irekiak nahiago dituelako.

Lursail handiak, otalur harritsuak eta landu gabeko lur-zatiak ditu gustuko, baldin eta habia jartzeko aukera ematen dioten zuhaitzen bat inguruan badute.

Dena den, zuhaitzik egon ezean, harresi, harkaitz edo eraikinetako zuloetan jar dezake habia, edo, bestela, untzien gordelekuak aprobetxa ditzake horretarako.

Gaueko beste harrapariak baino sarriago ikus daiteke egunez. Ez da arraroa egunez arroka-ertz edo talaia ireki batean pausatuta aurkitzea eta inguruan gaudela antzeman duenean hegaldiari nola ekiten dion ikustea. Izan ere, hegaldi baxua eta izurtua du, eta hegoak aldizka astintzen ditu.

Nagusiki, intsektu handiak, saguak, satitsuak eta bestelako ugaztun txikiak jaten ditu, eta txoritxoekin, igelekin, muskerrekin eta sugandilekin osatzen du elikadura.






## RAPACES NOCTURNAS

### CÁRABO COMÚN

#### Cáрабо Común (Urubi Arrunta)

##### *Strix aluco*

Es, con toda probabilidad, la rapaz nocturna más abundante de cuantas pueblan el País Vasco. Estrictamente sedentaria, habita en todo tipo de bosques, bosquetes, campiñas y parques, pasando desapercibida durante el día. Al caer la noche, en cambio, deja oír su potente ulular, que como en otras especies, sirve para proclamar el territorio. Cría generalmente en huecos de árboles, por lo que –como a muchas aves forestales– le favorece la existencia de pies añosos. Infatigable capturador de ratones y topillos.



#### Urubi arrunta (Cáрабо Común)

##### *Strix aluco*

Ziurrenik, Euskal Herrian bizi den gaueko harraparirik ugariena da. Sedentario peto-petoa da, mota guztietako baso, zuhaitzi, landazabal eta parkeetan bizi da, eta egunez zaila da haren presentzia konturatzea. Iluntzen duenean, berriz, urubiaren ulu indartsua entzun daiteke. Ulu hori, beste espezie askoren moduan, lurraldea aldarrikatzeko baliatzen du. Zuhaitzetako zuloetan umatu ohi da. Beraz, basoko beste hegazti batzuen antzera, ongi etortzen zaizkio enbor zaharrak. Saguen eta lursaguen ehiztari aseezina da.



Pollos de Cáрабо Común  
Urubi arruntaren txitak



## GAUEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### URUBI ARRUNTA





## RAPACES NOCTURNAS

### BÚHO CHICO



Búho Chico  
Hontz Ertaina

## GAUEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### URUBI ARRUNTA

#### Búho chico (Hontz ertaina)

##### *Asio otus*

Talla 35 cm. En nuestro País es sedentario. Recibimos algunos migrantes de allende el Pirineo que refuerzan la población autóctona durante el invierno.

Como ocurre con el resto de las rapaces nocturnas, es más fácil detectar la presencia del **Búho Chico** mediante el oído que por la vista. Su canto, un «hou-hou-hou» grave y suspirante, suele oírse ya bien oscurecido.

Prefiere instalarse en bosques y bosquetes de coníferas que en los de frondosas, aunque localmente lo haga también en éstas. No hay, todavía, información al respecto, pero podría ser una de las especies que se han visto favorecidas por la introducción de resinosas en la vertiente cantábrica.

Como la Lechuza Común y el Cáрабо Común, es un gran cazador de roedores, está protegido por la ley. Completa su alimentación con algunos pajarillos y escarabajos.

Suele anidar aprovechando nidos viejos de otras aves como la Urraca y la Corneja Negra. Puesta de 4-5 huevos blancos que incuba durante 28 días. Los pollos tardan en volar unos 25.

Como el resto de los búhos, se distingue de lechuzas, cárabos y mochuelos por los penachos de plumas que, a modo de orejas, tiene en la cabeza.

Estos apéndices no tienen función auditiva.



#### Hontz ertaina (Búho Chico)

##### *Asio otus*

35 cm neurtzen ditu. Sedentarioa da Euskal Herrian. Neguan, Pirinioen bestaldeko migratzaile batzuk iristen dira, eta horrek bertako kopurua osatzen du.

Gaueko gainerako harraparien antzera, errazagoa da **hontz ertainari** entzunez eta ez ikusiz antzematea.

Gauetz entzun daiteke haren «hou-hou-hou» ulu sakona eta xuxurlaria.

Nahiago dituzte konifera-basoak eta -zuhaiztiak, zuhaitz hostotsuak baino, baina azken mota horretako basoetan ere bizi daitezke. Oraindik horri buruzko informaziorik ez badago ere, uste da Kantauriko isurialdean erretxinadun zuhaitzak sartu izana espeziearentzat onuragarria izan dela.

Hontz zuriaren eta urubi arruntaren antzera, karraskarien ehiztari trebea da, eta legez babestua dago.

Txoritxoekin eta kakalardoekin osatzen du elikadura.

Beste hegaztien habia zaharrak aprobeztatu ohi ditu, hala nola mikarena eta belbeltzarena.

Lauzpabost arrautza zuri erruten ditu, eta 28 egunez txitatzen da. Txitek 25 egun behar dituzte hegan egiten hasteko.

Gainerako hontzen antzera, belarri modura buruan dituen luma-gandorrei esker bereiz daiteke hontz zuriengandik, urubiengandik eta mozoloengandik.

Apendize horiek, dena den, ez diote entzuteko balio.



## RAPACES NOCTURNAS

### BÚHO REAL

Al ser sorprendidos  
en su nido  
por un posible depredador,  
los pollos de Búho Real  
adoptan actitudes  
intimidatorias.

Harraparia izan daitekeena  
habiarra gerturatzen ari  
direla ohartuta, hontz  
handiaren txitak etsaia  
beldurtzen saiatzen dira.



## GAUEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### HONTZA HANDIA

#### Búho Real (Hontza Handia)

##### *Bubo bubo*

Talla hasta 72 cm, y 150 a 180 cm. de envergadura.

Es el mayor búho de Europa, verdadero señor de la noche por su fortaleza y temibles garras.

Formidable cazador, se atreve con presas de tamaño importante y, algunas de ellas, bien dotadas a su vez para la defensa, como el zorro y las rapaces diurnas.

Los estudios sobre su alimentación han demostrado que captura una gama muy variada de presas pero la base de su dieta la constituyen las más abundantes, conejos y roedores, y un número limitado de animales de mayor tamaño.

El **Búho Real** es sedentario. Se instala en roquedos de montaña, gargantas fluviales y riscos apartados;

en general en terrenos accidentados y poco accesibles.

Al parecer, su escasez se debe a razones de tipo ecológico sino a la persecución de que ha sido objeto por parte del hombre. Hay constancia de que antiguamente llegó a anidar en edificios y de que su presencia no era rara en la proximidad de zonas habitadas.

Anida en cavidades y repisas de acantilados, árboles huecos o nidos abandonados de rapaces.

Es escaso, pero todavía quedan unas cuantas parejas en nuestros roquedos.

Escuchar el sobrecogedor ulular, que emite durante el celo invernal desde lo alto de una peña dominante, es uno de los privilegios con que nos obsequia nuestra naturaleza.



#### Hontz handia (Búho Real)

##### *Bubo bubo*

72 cm luze eta 150-180 cm zabal izatera irits daiteke.

Europako hontzik handiena da, eta haren indarrak eta atzapar beldurgarriak gaueko jaun eta jabe bihurtu dute.

Ehiztari bikaina da, eta tamaina nahiko handiko harrapakinei ere aurre egiten die, animalia horiek, azeria edo eguneko harrapariak kasu, defentsarako dohain handiak izanik ere. Haren elikadurari buruzko ikerketen arabera, harrapakin mota ugari elikatzen da, baina oinarritzkoenak dira, batetik, untxiak eta karraskariak, eta, bestetik, tamaina handiagoko beste animalien kopuru txikiago bat.

**Hontz handia** sedentarioa da. Mendiko harkaitzetan, ibai-arroiletan eta haitz urrunduetan bizi da, hau da, lur malkartsu eta antzemateko zailetan. Antza denez, haren kopuru mugatuaren arrazoiak ez daude ekologiari lotuak, gizakiak egin dion jazarpenari baizik. Jakin dugu garai batean habiak eraikinetan egiten zituela eta gizakia bizi zen tokieng inguruan ikustea ohikoa zela.

Labarretako zulo eta erlaitzetan edo zuhaitz hustuetan egiten du habia, edo beste harrapari batzuek bertan behera utzitakoak aprobetxatzen ditu. Euskal Herrian urria da, baina, oraindik, bikote batzuk bizi dira bertako harkaitzetan.

Haitz altu batean pausatuta neguko araldian botatzen duen ulu izugarria entzutea naturaren ikuskizun handienetakoa da.





## RAPACES NOCTURNAS

### BÚHO REAL



## GAUEKO HEGAZTI HARRAPARIAK

### HONTZA HANDIA





PASERIFORMEAK EZ DIREN  
BESTE HEGAZTI BATZUK

OTRAS AVES NO PASERIFORMES







## OTRAS AVES

### GALLINÁCEAS

#### Perdiz Común (Eper Gorria)

##### *Alectoris rufa*

Talla 34 cm. La **Perdiz Común** es sedentaria; no abandona para nada su territorio.

Solo las que viven en zonas altas, de montaña media, suelen desplazarse a laderas más bajas o llanos próximos en invierno, cuando la nieve les obliga a ello.

Es una especie originaria de la Península Ibérica, de donde se ha extendido por el sur y centro de Francia, alcanzando una pequeña parte del noroeste de Italia y puntos aislados de Suiza. En Inglaterra la han introducido en algunas zonas.

Antiguamente ocupaba toda Euskal Herria, siendo más abundante siempre en su área mediterránea, en donde el medio ofrece unas condiciones más adecuadas a las exigencias ecológicas de la especie que las de la vertiente cantábrica. En esta última zona hoy se halla prácticamente extinguida aunque se intenta su reintroducción. También en la parte mediterránea han descendido mucho sus efectivos, debido a la excesiva presión cinegética y a las modernas prácticas agrícolas —empleo de pesticidas y herbicidas, maquinaria pesada, eliminación de setos y ribazos— con resultados fatales para la especie.



#### Eper gorria (Perdiz Común)

##### *Alectoris rufa*

34 cm neurtzen ditu. **Eper gorria** sedentarioa da, eta ez du sekula bere lurraldea uzten.

Eremu garaietan bizi direnak soilik mugitzen dira mendi hegal baxuagoetara edo hurbileko lautadetara, neguan, eta elurak hala behartuta. Jatorriz Iberiar Penintsulako espeziea da, eta handik zabaldu da Frantzia hegoaldera eta erdialdera. Are gehiago, Italiako ipar-mendebaldeko txoko batera eta Suitzako gunee urri batzuetara ere hedatu da. Halaber, Ingalaterrako gunee batzuetan ere sartu dute.

Garai batean, Euskal Herri osoan bizi zen.

Dena den, ugariagoa zen eremu mediterranean, hango egoera Kantauriko isurialdekoa baino egokiagoa zelako espeziearen behar ekologikoetarako.

Egun, ia erabat desagertu da azken eremu horretatik, baina berriz sartzeko ahaleginak egiten ari dira.

Mediterraneoko isurialdean ere, nabarmen txikitu da eperren kopurua, presio zinegetiko neurrigabea eta nekazaritza-praktika modernoak (pestizidak eta herbizidak erabiltzea, makineria astuna, heskaiak eta ezpondak kentzea...) direla medio.

Praktika horiek, hain zuzen, efektu lazgarriak izan dituzte espeziearengan.



## BESTE HEGAZTI BATZUK

### GALLINAZEOAK

El hábitat preferido de la perdiz es el campo abierto: estepa cerealista, cultivos de viñedo y olivar, colinas con matorral bajo y ralo de tomillo y romero, prados y pastos mediterráneos y monte bajo, aunque se adapta a otros tipos de terreno.

Cría en el suelo, en un hoyo que tapiza con hierbajos, entre matas, pasto alto o en cultivos de cereal.

Pone un número elevado de huevos, de 10 a 15 y a veces más, siendo frecuente que saque dos polladas.

En ocasiones la hembra pone simultáneamente en dos nidos, uno incubado por ella y el otro por el macho.

A los 25 días nacen los perdigones, cubiertos de plumón y muy despiertos, capaces de correr tras sus padres a los pocos minutos de la eclosión. Al menor síntoma de peligro se inmovilizan, pegados al suelo, donde es muy difícil descubrirlos dado su perfecto mimetismo.

Hacia los quince días de vida las jóvenes perdices comienzan ya a dar sus primeros vuelos.

La alimentación es a base de granos de cereal y gramíneas silvestres, otras semillas, brotes tiernos, flores y hojas, que complementa con algunos alimentos de origen animal como insectos, caracolillos y otros pequeños invertebrados.

Tiene un vuelo potente y directo, en el que alterna un fuerte batido de alas con largos planeos. Si no se ve muy acosada suele preferir huir apeonando, corriendo con rapidez.

Las distancias recorridas en cada vuelo no suelen ser muy largas.

Eperraren habitat gogokoena landa zabala da:

zereal-estepa, mahasti- eta olibadi-sailak, ezkai- eta erromero-sastraka baxu eta meheko muinoak, belardi eta larre mediterranearrak, mendi baxuak...

Dena den, beste ingurune batzuetan ere bizi daiteke.

Lurrean umatzen du, belarrez estaltzen duen zulo batean, sastraka edo belar altuen artean edo zereal-lursailetan.

Arrautza ugari erruten ditu, 10-15 bat edo gehiago, eta ohikoa da bi txitaldi izatea. Batzuetan, emeak bi habietan erruten du aldi berean; bata berak berotzen du, eta bestea, arrak. Eperkumeak 25 egunera jaiotzen dira, lumatzaz estalita. Oso biziak dira, eta gurasoen atzetik laster egiteko gai dira arrautzatik atera eta denbora gutxira.

Arrisku txikiena sumatu bezain azkar, geldi-geldi geratzen dira, lurrari estuki atxikiak, eta mimetismo paregabea dela medio oso zaila da haiek ikustea. 15 egun soilik dituztenean, eper gazteak hegan hasten dira. Zereal-aleak, basa-gramineak, beste hazi batzuk, kimu samurrak, loreak eta hostoak jaten ditu, eta animalia-jatorriko elikagaiak ere jaten ditu hala nola intsektuak, barraskilotxoak eta beste ornogabe batzuk.

Hegan egiteko modu indartsua eta zuzena du, eta astindu indartsuak eta planeatze luzeak txandakatzen ditu. Mehatxua handiegia ez bada, nahiago du azkar laster eginez alde egitea. Hegaldi bakoitzean zeharkatzen dituen distantziak ez dira oso luzeak.





## OTRAS AVES

### GALLINÁCEAS

#### Codorniz Común (Galeperra).

*Coturnix coturnix*

Avecilla también apreciada por los cazadores, ocupa campos de cultivo y praderías emitiendo su canto trisílabo: “pás-pa-llás”. Migradora y oportunista, alterna años de abundancia con otros de franca escasez.



#### Galeperra (Codorniz Común)

*Coturnix coturnix*

Ehiztariek gustuko duten hegazti txiki bat da. Landutako lurretan eta belardietan bizi da, eta hiru silabako txioa du: «pas-pa-llas». Migratzailea eta oportunista da, eta, kopuruari dagokionez, gorabehera handiak izaten dira urte batetik bestera.



Codorniz Común  
Galeperra




## BESTE HEGAZTI BATZUK

### GALLINAZEOAK

#### **Perdiz Pardilla (Eper Grisa). *Perdix perdix***

Además de la conocida Perdiz Común o Roja, en el extremo occidental de Navarra sobreviven a duras penas algunos ejemplares de **Perdiz Pardilla o Gris (*Perdix perdix*)**, una especie de montaña algo más pequeña. Desaparecida de los Montes Vascos (Gorbeia, Aizkorri) desde principios de siglo, seguramente debido a la caza abusiva o a la precariedad de su hábitat, se ha intentado su reintroducción. Se deben realizar grandes esfuerzos para garantizar su supervivencia.



#### **Eper Grisa (Perdiz Pardilla). *Perdix perdix***

Eper gorriaz gain, **eper grisaren (*Perdix perdix*)** ale gutxi batzuek bizirauten dute Nafarroako mendebaldeko muturrean, zailtasun handiz. Aurreko mendearen hasieran desagertu zen euskal mendietatik (Gorbeia, Aizkorri), ziurrenik, neurrigabeko ehizarengatik edo haren habitataren eskasiarengatik, eta espeziea berriz sartzeko saioak egin dira. Dena den, ahalegin handiak egin beharko dira eper grisaren biziraupena bermatzeko.





OTRAS AVES

GALLINÁCEAS





## BESTE HEGAZTI BATZUK

### GALLINAZEOAK





## OTRAS AVES

### GALLINÁCEAS

#### Perdiz nival

#### Lagópodo Alpino (Eper Zuria)

#### *Lagopus mutus*

Tiene sobre 35-36 cm de talla.



Esta ave ha sido conocida popularmente como Perdiz Nival.

Es un ave sedentaria, pero las grandes nevadas le obligan a descender a cotas más bajas, buscando lugares en los que la capa de nieve sea menos espesa.

En nuestras latitudes es ave típica de la montaña, donde ocupa, de preferencia, pedrizas del piso alpino, al borde mismo de los neveros. Su adaptación al duro medio en que vive es perfecta: tiene las patas cubiertas de plumas, que le aislan del contacto directo con la nieve, y uñas fuertes que le permiten escarbar en ella para alcanzar la vegetación subyacente o excavar un hueco en el que refugiarse.

En invierno tiene un plumaje totalmente blanco, salvo la cola, que es negra, pero queda casi oculta cuando el ave está posada, por lo que es casi imposible advertir su presencia sobre la blancura uniforme de la nieve.

En verano las partes superiores, pecho y flancos son color pardo negruzco, profusamente moteados, coloración que se confunde muy bien con el tono del suelo desnudo. Las alas y el vientre permanecen blancos, rasgo distintivo que permite identificar fácilmente la especie.



#### Eper Zuria (Lagópodo Alpino)

#### *Lagopus mutus*

35-36 cm inguru neurtzen ditu.

Hegazti horri elurretako eperra deitu izan zaio.

Hegazti sedentarioa da, baina, elurte handiak daudenean, eremu baxuetara jaitsi behar du, elur-geruza meheagoa duten tokien bila. Gure artean, mendiko hegazti peto-petoa da, eta elurtegietako ertzean bertan diren goi-mendietako harritzak ditu gustukoen. Modu ezin hobean egokituta dago bizi den ingurunera: batetik, hankak lumez estalita dauzka, elurra zuzenean ukitu behar ez izateko; eta, bestetik, azkazal indartsuak ditu, elurra haztakatu ahal izateko.

Hartara, azpiko landaredia aurkitu, edo zulo bat egin dezake, babesleku gisa.

Luma guztiz zuriak ditu, buztan beltza salbu.

Baina, hegaztia pausatuta dagoenean, ezkutatuta geratzen da, eta ia ezinezkoa da hari antzematea, elurraren zuritasun uniformearen erdian.

Udan, berriz, goiko parteek, bularraldeak eta alboek kolore arre belzkara hartzen dute, orban askorekin.

Kolore hori, bada, oso ongi mimetizatzen da elurrik gabeko lurraren tonuarekin. Hegoek eta sabelak kolore zurikoak izaten jarraitzen dute. Ezaugarri hori da haren bereizgarria, eta espeziea modu errazean identifikatzen laguntzen du.

## BESTE HEGAZTI BATZUK

### GALLINAZEOAK



Alcanza altitudes de 2.600 m. en época de cría e incluso superiores más tarde. Se alimenta de semillas, hojas, botones florales y otras partes vegetales de plantas alpinas. Anida en el suelo, al abrigo de alguna piedra o matojo, donde excava un hoyo que cubre con hierbas y plumas. Pone de 4 a 10 huevos de los que nacen unos pollos nidifugos, cubiertos de plumón amarillo salpicado de manchas pardo oscuro.

En el Pirineo navarro quedan unos cuantos ejemplares por las zonas de Iru Errege Maia (Mesa de los Tres Reyes), Larra y Añamendi (Anie).

Kumeak hazteko garaian, 2.600 metroko garaieran bizi daiteke, eta are eremu altuagoetan, geroago.

Haziak, hostoak, lore-ernamuinak eta goi-mendietako landareen beste zati batzuk jaten ditu.

Lurrean jartzen du habia, harri edo sasi batzuen babespean, belarrez eta lumez estalitako zulo batean.

4 eta 10 arrautza artean erruten ditu.

Txita nidifugoak jaiotzen dira, lumatxa horiz estaliak, eta arre ilun koloreko orbanekin.


Hainbat ale geratzen dira Nafarroako Pirinioetan, Hiru Erregeen Mahaiairen eta Larraren eta Añamendiren inguruan.





## OTRAS AVES

### GALLINÁCEAS



El Lagópodo Alpino y el Urogallo, con poblaciones reducidísimas y restringidas a hábitats muy concretos, requieren medidas de protección estrictas.

Eper zuria eta basoilarra oso urriak dira eta oso habitat mugatuetan bizi daitezke.

Hala, babes-neurri zorrotzak eskatzen dituzte.

## BESTE HEGAZTI BATZUK


### GALLINAZEOAK

#### Urogallo (Basoilarra)

##### *Tetrao urogallus*

En la ilustración podemos ver las huellas, bien marcadas en la nieve, de uno de los pocos ejemplares de Urogallo que quedan en Navarra. Como el Lagópodo, esta especie tiene las patas cubiertas de plumas y muy fuertes, propias de las aves que prefieren caminar que alzar el vuelo, característica esta última común a todas las gallináceas.

El bosque de pino negro de Anielarra, con una población que no debe de sobrepasar la docena, es su último refugio en Euskal Herria, aunque hay alguna cita invernal en Irati.



#### Basoilarra (Urogallo)

##### *Tetrao urogallus*

Irudian aski ongi markatuta ageri dira Nafarroan geratzen diren basoilar urrietako batek elurretan utzitako oinatzak.

Eper zuriak bezala, espezie horrek lumaz estalitako hanka indartsuak ditu. Hanka mota horiek ibiltzea hegan egitea baino gustukoago duten hegaztien bereizgarri dira.

Hain zuzen, gallinazeo guztiek nahiago dute ibiltzea.

Añelarrako pinu beltzeko basoan dozena bat bizi dira, eta horixe da basoilarren azken babeslekua Euskal Herrian. Dena den, neguan, Iratin ere ikusi da baten bat.

Macho de Urogallo  
Basoilar arra



Hembra de Urogallo  
Basoilar emea



## OTRAS AVES


### AVES DE CORRAL

#### Gallina vasca (Euskal Oiloa)

En la década de los setenta se consolidó en el I.N.I.A. de Madrid bajo la dirección de F. Orozco dentro del Programa de Conservación de razas autóctonas españolas la fijación de los caracteres de lo que se llamó entonces Eusko Oiloa, que es lo mismo que lo que se llama actualmente más correctamente Euskal Oiloa. Hay que mencionar también, los estudios de Genética cualitativa del plumaje de J.L. Campo.

Según el patrón se puede definir en general la Euskal Oiloa como:

- gallina de peso medio (gallo 3,3-4,5 kg y la gallina 2,5-3,5 kg)
- cresta erguida con 5-6 dientes
- orejillas y barbillas rojas
- piel y patas amarillas
- ponedora de huevo moreno



Marraduna



#### Euskal oiloa (Gallina vasca)

XX. mendeko 70eko hamarkadan, Madrilgo Nekazaritza eta Elikagai Ikerketa eta Teknologiako Espainiako Erakundean (INIA), F. Orozcoren zuzendaritzapean, eta Espainiako arraza autoktonoak kontserbatzeko programaren barruan, garai horretan *eusko oiloa* deitu zen espeziearen ezaugarriak finkatu ziren. Espezie horri, egun, izen egokiagoa jarri zaio: *euskal oiloa*. Ildo horretan, komeni da J. L. Camposek lumadiaren genetika kualitatibori buruz egin dituen ikerketak aipatzea.

Hona hemen euskal oiloaren eredua:

- pisu ertaineko oiloa da (oilarrak 3,3-4,5 kg inguru pisatzen ditu, eta oiloak 2,5-3,5 kg inguru)
- 5-6 hortzeko gandar tentea
- belarritxo eta kokots gorriak
- azal eta hanka horiak
- arrautza beltzak erruten ditu

## BESTE HEGAZTI BATZUK

### ESKORTA HEGAZTIAK






## OTRAS AVES

### AVES DE CORRAL




Beltza



Marraduna



Lepasola



Gorria



Zilarra

## BESTE HEGAZTI BATZUK

### ESKORTA HEGAZTIAK

#### Variedades

Existen 5 variedades de plumaje:

- **Gorria** («lepogorria»). Plumaje pardo-rojizo, esclavina y caireles rojo-anaranjado brillante. En la parte final de la esclavina las plumas tienen en su centro las puntas negras. Las 8-10 plumas de la fila inferior de las cobijas externas son negras, así como la parte final de la cola.
- **Marraduna** («marradune»). El efecto del gen barrado sobre el plumaje de la «Gorria» hace que el plumaje se aclare. El gallo homocigoto es más claro que el heterocigoto.
- **Lepasoila**. Tiene el mismo color que la «Gorria» pero con la particularidad de carecer de plumas en el cuello, hombros, parte interior de los muslos y zonas laterales del abdomen.
- **Zilarra**. Tiene el plumaje de la «Gorria» pero cambiando el color pardo-rojizo por el blanco.
- **Beltza**. Tiene todas las plumas negras con brillo verde-azulado.

#### Interés productivo

Entre las características de interés productivo citaremos los siguientes datos:

La «Lepasoila» es buena productora de carne, la «Marraduna» los es de huevos, mientras que la «Gorria» se puede considerar mixta atendiendo a este carácter.

En las variedades «Lepasoila» y «Gorria» se ha buscado la creación de las líneas masculina y femenina de esta manera: machos para producción cárnica, y hembras para producción de huevos.

Se estudia la utilización de la pluma como cebo de pesca.

#### Motak

Bost lumadi-mota daude:

- **Gorria** («lepogorria»). Luma arre-gorrixkak ditu, eta lepo-inguru eta buru gorri-laranja biziak. Lepoaren muturreko lumek punta beltzak dituzte erdigunean. Hala-ber, kanpo-bizkarraldeko beheko lerroan dituen 8-10 bat lumak eta buztanaren amaiera beltzak dira.
- **Marraduna**. Gorriari gene marraduna txertatu izanaren ondorioz, mota horren lumak argiagoak dira. Bestalde, oilar homozigotoaren kolorea heterozigotoarena baino argiagoa da.
- **Lepasoila**. Gorriaren kolore berekoa da, baina ez du lumarik lepoan, sorbaldetan, izterren barruko zatian edo sabelaldearen alboetan.
- **Zilarra**. Lumak gorriarenak bezalakoak ditu, baina arre-gorrixka izan ordez, zuria da.
- **Beltza**. Haren luma guztiak beltzak dira, distira berde-urdinekoak.

#### Ekoizpena

Hona hemen ekoizpenaren aldetik interesgarriak izan daitezkeen ezaugarri batzuk:

Lepasoila egokia da haragirako; marraduna, berriz, arrautzak ekoizteko. Gorria, bestalde, mistotzat jotzen da.

Lepasoila eta gorria motei dagokionez, arren eta emeen aprobetxamendua aski ongi bereizi da: arrak haragia ekoizteko baliatzen dira, eta emeak, berriz, arrautzak ekoizteko.

Lumak arrantzarako amu gisa erabiltzeko aukera aztertzen ari da.



## OTRAS AVES

### AVES ESTEPARIAS

#### Sisón Común (Basoilo Txikia)

##### *Tetrax tetrax*

Sobre 43 cm de talla y 90 cm. de envergadura.

Es migrador parcial en zonas situadas más al norte.

Nuestra población de sisonos es probablemente sedentaria en su totalidad. Cría en zonas esteparias y llanuras cerealistas del sur de Euskal Herria.

Allí pueden verse sisonos todo el año; más abundantes en invierno debido a la llegada de migrantes de allende el Pirineo. En el resto de nuestra geografía se hace presente sólo en los pasos migratorios.

Es ave muy recelosa, propia de grandes espacios abiertos, en los que su considerable talla le permite vigilar un amplio territorio. Vuelo rápido y directo. El batir de alas del macho produce una especie de silbido o siseo que ha sido el origen del nombre castellano de la especie.



#### Basoilo txikia (Sisón Común)

##### *Tetrax tetrax*

43 cm inguru luze eta 90 cm zabal da.

Migratzaile partziala da iparralderago kokatutako eremuetan.

Gure artean bizi diren basoilo guztiak, berriz, sedentarioak dira ziur aski. Euskal Herriaren hegoaldeko zereal-estepa eta lautadetan umatzen da.

Toki horietan, urte osoan zehar ikus daitezke basoiloak, baina, neguan, ugariagoak dira, Pirinioetako bestaldetik iritsitako migratzaileei esker. Euskal Herriko gainerako eremuetan, migrazio-tokietan soilik ikus daiteke.

Oso hegazti mesfidatia da. Eredu zabalei lotua dago bete-betean, eta haren tamaina handi samarrak lurralde-zati handia zelatatzeko bide ematen dio. Hegaldi azkarra eta zuzena du. Arrak txistu edo ixi moduko bat ateratzen du hegoak astintzean, eta hortik dator gaztelaniaz ematen zaion *sisón* izena.

Sisón Común

Basoilo txikia



## BESTE HEGAZTI BATZUK

### ESTEPAKO HEGAZTIAK



El Sisón Común cría en el suelo, en una depresión del terreno en la que pone 3-4 huevos pardos. Los pollos que son nidífugos tardan varias semanas en volar, pero corren con agilidad al poco de nacer.


**Basoilo txikia** lurrean umatzen da; 3-4 arrautza arre erruten ditu lurreko zokoguneren batean. Txitak nidifugoak dira, eta, hegan egiten hasteko aste batzuk behar badituzte ere, trebetasunez laster egiteko gai dira jaio eta berehala.





## OTRAS AVES

### AVES ESTEPARIAS



## BESTE HEGAZTI BATZUK

### ESTEPAKO HEGAZTIAK

#### Avutarda Común (Basoilo Handia)

##### *Otis tarda*

En algunas zonas, el sisón se confunde con su congénere la **Avutarda Común** a la que se le parece en aspecto y tipo de hábitat que ocupa, pero hay una notable diferencia de tamaño entre ambas. La Avutarda es mucho mayor; tiene una talla de alrededor del metro y algunos grandes machos llegan a 2,20 m de envergadura y pesos de hasta más de 16 kilos. Es una lástima que apenas queden una docena de avutardas en Navarra, distribuidas en la Bardena y la llanura cerealista de la Ribera.



#### Basoilo Handia (Avutarda Común)

##### *Otis tarda*

Eremu batzuetan, Basoili Txikia kide duen **Basoilo Handiarekin** nahasten dute. Dena den, alde handia dago bien artean, tamainari dagokionez. Basoilo handia askoz handiagoa da, metro bat inguru neurtzen du, eta ar handi batzuk 2,20 m zabal neurtzera eta 16 kg pisatzera irits daitezke. Tamalez, dozena bat basoilo handi soilik geratzen dira Nafarroan, Bardeetan eta Erriberako zereal-lautadetan sakabanatuta.



Los modernos usos agrícolas, con avance de regadíos y roturación de terrenos antes incultos, son prácticas que ponen en peligro las amenazadísimas poblaciones navarras de aves esteparias. Avutardas y Gangas se hallan, seguramente, próximas a sus límites de supervivencia.



Nekazaritza-ustiapen modernoak, ureztatzeak areagotu izanak eta lehen landu gabe zeuden lurak luberritzeak arrisku larrian jarri dituzte Nafarroan bizi diren estepako hegaztiak. Ziurrenik, basoilo handiak eta gangak desagertzeko zorian daude.



## OTRAS AVES

### AVES ESTEPARIAS



## BESTE HEGAZTI BATZUK

### ESTEPAKO HEGAZTIAK

#### Ganga Ortega (Ganga Azpibeltza)

##### *Pterocles orientalis*

Talla 35 cm. Es un ave sedentaria.

Es una de nuestras aves esteparias, compañera de hábitat de avutardas, siones, gangas y alcaravanes.

Cabe confundirla con la **Ganga Ibérica** (Ganga Azpizuria. *Pterocles alchata*) de aspecto y costumbres parecidas, pero la Ortega es algo mayor y tiene una mancha negra muy conspicua en el vientre, detalles que permiten diferenciarla bien.

Pueden verse ortegas en secanos de la Ribera, por llanuras cerealistas y eriales esteparios.

La Bardena, los rasos de Lerín y la Plana de Olite son lugares muy adecuados. Algunas suben hasta Tierra Estella y el Romanzado.

Aprovecha para anidar algún pequeño hoyo del suelo, tapizándolo de hierbas en terrenos pedregosos, eriales y estepas.

Pone 2-3 huevos de un crema pálido y manchas castañas.

Incubación de tres semanas.

Pollos nidifugos, que nacen cubiertos de plumón y capaces de valerse por sí solos al poco tiempo.

Se alimenta de semillas e insectos.

Adaptada a zonas áridas en las que escasea el agua, es capaz de beber aguas salobres. En algunas zonas ha de recorrer diariamente considerables distancias hasta los puntos de agua, donde, después de beber ella, remoja las plumas del pecho almacenando así agua con la que aplacar la sed de sus polluelos.



#### Ganga azpibeltza (Ganga Ortega)

##### *Pterocles orientalis*

35 cm neurtzen ditu. Hegazti sedentarioa da.

Euskal Herrian bizi den estepako hegaztieta bat da, basoilo handi, basoilo txiki, ganga eta atalarrekin bat.

Erraza da **ganga azpizuriarekin** (*Pterocles alchata*) nahastea, itxura eta ohitura antzekoak dituztelako.

Dena den, ganga azpibeltza handixeagoa da, eta orban beltz nabarmena du sabelean.

Ezaugarri horiek, bada, ongi bereizten laguntzen dute.

Ganga azpibeltzak ikus daitezke Erriberako lehorreko lurretan, zereal-lautadetan eta estepako otalurretan.

Bardeak, Leringo ordokiak eta Oliteko lautadak oso ingurune egokiak dira harentzat. Halaber, ale batzuk ikus daitezke iparralderago: Estellerrian eta Erromantzatuan.

Lur harritsuetako, otalurretako edo estepetako zuloren bat baliatzen du habia jartzeko, eta belarrez estaltzen du.

Krema koloreko bizpahiru arrautza jartzen ditu, gaztaina-koloreko orbanekin. Hiru astez berotzen ditu.

Txita nidifugoak lumatxez estalita jaiotzen dira, eta bere kabuz ibiltzeko gai dira jaio eta berehala.

Intsektuz eta haziez elikatzen da.

Ur gutxiko leku lehorretan bizitzera ohituta dago, eta ur gazia ere edan dezake. Eremu batzuetan, distantzia handiak zeharkatu behar ditu egunero, ura dagoen tokietaraino. Han, edan egiten du, eta gero, bularraldeko lumak ureztatzen ditu, eta hala, ura bildu eta txitei edaten ematen die.



## OTRAS AVES

### AVES ESTEPARIAS

#### Alcaraván Común (Atalarra)

##### *Burhinus oedipnemos*

Talla de unos 40 cm.

Es migrador parcial. Sólo crían unas pocas parejas en nuestro país, en puntos apropiados del área mediterránea, donde suele verse también grupos de aves invernantes, rara vez grandes. Más frecuente en los pasos migratorios, sobre todo en el otoño. En esta época pueden verse, y sobre todo oírse, alcaravanes en cualquier punto de nuestra geografía.

A diferencia de otros limícolas, los alcaravanes suelen establecerse a criar en terrenos secos, de vegetación baja y rala, en zonas pedregosas, arenales, colinas peladas, eriales, etc. En definitiva, en terrenos abiertos y muchas veces semiesteparios. En invernada frecuentan, también, marismas y zonas del litoral. Acostumbran realizar los vuelos migratorios durante la noche, en grupos no muy grandes, haciendo oír su llamada de reclamo, un grito característico, gemiente, que algunos traducen por un «francoiii», del que ha derivado uno de los nombres dados a la especie. Tiene unos ojos grandes, de color amarillo vivo, que denotan sus costumbres crepusculares. Vuelan bien pero pasan la mayor parte de su vida en el suelo, donde caminan y comen con agilidad.



#### Atalarra (Alcaravan Común)

##### *Burhinus oedipnemos*

40 cm inguru neurtzen ditu.

Migratzaile partziala da. Bikote gutxi batzuk baino ez dira umatzen Euskal Herrian, eremu mediterranearreko oso gune zehatzetan. Gune horietan, beste hegazti negutar batzuen taldeak ikus daitezke, baina ez dira hegazti handiak izaten. Ohikoagoa da migrazio-aldietan zehar ikustea, udazkenean, batez ere. Garai horretan, Euskal Herriko edozein tokitan ikus eta, bereziki, entzun daitezke atalarrak.

Beste hegazti zangaluzak ez bezala, atalarrak lur lehorretan umatzen dira. Lur horiek landare baxua eta mehea dute, eta eremu harritsuetan, hareatzetan, muino biluzietan eta abarretan egon ohi dira. Hau da, esparru irekiak eta erdi estepakoak dituzte gustuko.

Negualdian, paduretara eta kostaldeko eremuetara ere joaten dira. Migrazio-hegaldiak gauz egin ohi ditu, talde ez oso handietan. Orduan, haren txioa entzunarazten du.

Oso soinu bereizgarria da, hasperen baten modukoa, eta batzuek «frankoiii» dioela interpretatu dute.

Horra, bada, espezieari eman zaion izenetako baten jatorria. Kolore hori biziko begi handiak ditu, ilunabarreko ohituren isla. Ongi egiten dute hegan, baina ia bizitza osoa igarotzen dute lurtean, han trebetasun handiz mugitu eta jaten dutelako.

## BESTE HEGAZTI BATZUK

### ESTEPAKO HEGAZTIAK

Los alcaravanes crían en un hoyo, excavado sobre el terreno, que rellenan con piedrecillas. Ponen dos huevos color crema, moteados, que se confunden muy bien con las piedrecillas del nido. Los pollos, nidífugos, comienzan a volar hacia los 40 días de la eclosión. Se alimentan de moluscos –caracoles y babosas–, insectos y sus larvas, lombrices y otros animalillos del suelo.

Atalarrak lurrian egindako zulo batean umatzen dira; zuloa harri txikiez betetzen dute. Crema koloreko bi arrautza orbandun erruten dituzte, eta zaila da horiek habiako harritxoetatik bereiztea. Txitak nidífugoak dira, eta arrautza apurtu eta 40 egunera hasten dira hegari. Moluskuak (barraskiloak eta bareak), intsektuak, larbak, zizareak eta lurreko beste animalia txiki batzuk jaten dituzte.



Huevos de Alcaraván Común  
*Atalarraren arrautzak*



## OTRAS AVES

### COLÚMBIDOS

#### Tórtola Europea (Usapala)

##### *Streptopelia turtur*

Talla 28 cm. Se hace presente en época estival y en los pasos migratorios. Las primeras tórtolas suelen llegar a nuestra zona ya en abril.

Pero su paso se prolonga hasta bien entrado mayo.

Cría en toda Euskal Herria en zonas bajas, pero mucho más abundante en la parte mediterránea.

Le gusta instalarse en terreno abierto, llano, con setos, matorrales y bosquetes salpicados. Le va, también, muy bien el monte adehesado de encina y carrasca.

Anida en arbustos o arbolillos, en una plataforma rudimentaria de palitos donde deposita dos huevos blancos.

Nacen los pichones a los 14 días y vuelan sobre los 18.

Se alimenta a base de semillas y granos.

El paso migratorio otoñal se produce desde mediados de agosto, con su máximo en setiembre y el de las aves retrasadas en octubre. Viaja a menudo de noche.

Las noches lluviosas, tan frecuentes en la vertiente cantábrica, la obligan a sedimentarse, apareciendo a la mañana siguiente posadas, un poco por todo, en árboles y arbustos.

Distintas causas, entre las que figuran la elevada presión cinegética que soportan y la desaparición de linderos y ribazos en zonas agrícolas, han llevado a la especie a una clara regresión. Su pariente la Tórtola Turca (*Streptopelia delaocto*), reciente colonizadora de nuestro territorio, es un ave urbana.



#### Usapala (Tórtola Europea)

##### *Streptopelia turtur*

28 cm neurtzen ditu. Udaldian ikus daiteke, migrazioaldietan. Lehenengo usapalak apirila aldera iristen dira Euskal Herrira. Dena den, maiatzera bitartean luzatzen dira haren migrazioak.

Euskal Herri osoko eremu baxuetan umatzen da, baina ugariagoa da Mediterraneoko isurialdean.

Esparru irekiak, lauak, heskai, sasitza eta zuhaitzi sakabanatuak dituztenak ditu bizigune gustukoena. Artadietako larre itxurako mendia ere oso egokia da harentzat.

Sasi edo zuhaitz txikietan jartzen du habia, makilatxoez egindako plataforma bakun batean, eta bi arrautza zuri erruten ditu.

Kumeak 14 egunera jaiotzen dira, eta 18 egunera hasten dira hegan egiten. Haziez eta aleez elikatzen da.

Udazkeneko migrazioa abuztuaren erdialdean hasten da.

Usapal-kopuru handiena, dena den, irailean igarotzen da, eta hegazti berankorak, berriz, urrian.

Askotan, gauez bidaiatzen du. Kantauriko isurialdean oso ohikoak diren gau euritsuek atsedean hartzera behartzen dute.

Hartara, biharamunean, nonahi pausatuta, zuhaitz eta sasietan sakabanatuta agertzen dira.

Ale-kopurua nabarmen murriztu da, hainbat arrazoi direla medio, besteak beste: jasan behar duen presio zinegetiko handia eta nekazaritza-guneetako mugak eta ezpondak desagertu izana. Haren kide usapal turkiarra (*Streptopelia delaocto*) berriki sartu da Euskal Herrian, baina hiri-hegaztia da.



## BESTE HEGAZTI BATZUK





## OTRAS AVES

### COLÚMBIDOS

#### Chocha Perdiz (Oilagorra)

##### *Scolopax rusticola*

Está incluida en el grupo de las limícolas, que en general encuadra a aves propias de lagunas y humedales. No obstante, frecuenta bosques frescos, sobre todo hayedos y robledales, pero también pinares. Es pieza muy apreciada por los cazadores, que la buscan con ahínco cuando, entre octubre y febrero, se produce la arribada de gran número de ejemplares procedentes de Europa. Durante la reproducción es una especie muy escasa y localizada.



#### Oilagorra (Chocha Perdiz)


##### *Scolopax rusticola*

Hegazti zangaluzeen taldekoa da.

Hegazti horiek, oro har, urmael eta hezeguneetan bizi dira, baina oilagorrak, berriz, baso freskoak, pagadiak eta hariztiak nahiago ditu bereziki. Dena den, pinudietan ere aurkitu daiteke.

Balio handikoa da ehiztarien artean, eta urria eta otsaila artean, hau da, Europatik datorren ale-kopuru handia iristen denean, haren bila ateratzen dira gogo biziz.


Araldian, baina, eskasa da, eta toki oso zehatzetan soilik aurkitu daiteke.



Chocha Perdiz,  
también conocida como Becada o Sorda

## BESTE HEGAZTI BATZUK

Chocha Perdiz  
Oilagorra





## OTRAS AVES

### COLÚMBIDOS

#### Paloma Torcaz (Pago Usoa)

##### *Columba palumbus*

Talla: 41 cm. Algunas parejas aisladas de torcaces, pocas, crían en los bosques de la zona cantábrica. Algunas más en los pirenaicos, Sierra de Cantabria, etc., con alguna pequeña colonia establecida en focos del prepirineo, y parejas sueltas por los quejigales, carrascales y encinares de la zona seca. Por tanto, no es muy importante la población autóctona de esa especie. En cambio, al llegar el otoño, el paso migratorio de las bandas de torcaces es realmente espectacular.

La mayor parte de las que cruzan el Pirineo para invernar en la Península Ibérica proceden del Noroeste europeo: Escandinavia, Finlandia, Países Bálticos y Norte de Alemania. Más al Sur, la especie es cada vez más sedentaria e inverna in situ.



#### Pago usoa (Paloma Torcaz)


##### *Columba palumbus*

Neurria: 41 cm. Pago-usoen bikote gutxi batzuk Kantauriko isurialdeko basoetan umatzen dira.

Besteak beste, Pirinioetan eta Toloño mendilerroan aurkitu daitezke beste batzuk. Kolonia txiki bat ere badago Pirinioaurreko mendietan, eta bikote sakabanaturen bat eremu lehorreko erkamezti eta artadietan.

Beraz, espezie horren bertako banako-kopurua ez da oso handia. Aitzitik, udazkenean, pago-uso taldeen migrazioa ikusgarria da.

Pirinioak gurutzatu eta Iberiar Penintsulan negualdia igarotzen duten gehienak Europako ipar-mendebaldetik datoz: Eskandinaviatik, Finlandiatik, Baltikoko herrialdeetatik eta Alemaniaren iparraldetik. Izan ere, hegoalderago bizi diren pago-usoak sedentarioagoak dira, eta negualdia han bertan igarotzen dute.



## BESTE HEGAZTI BATZUK



En años con buena fructificación de bellotas y hayucos, algunos bandos se deciden a invernar entre nosotros. Sin embargo, el gran grueso de la población migradora, varios millones de aves, se dirigen a los encinares y alcornoques adehesados del suroeste peninsular, en Toledo, Extremadura y Portugal, donde se alimentarán entre noviembre y febrero de la cosecha de bellotas. Allí forman descomunales dormideros que pueden albergar cerca de un millón de aves, y cuya visión constituye uno de los espectáculos más grandiosos de cuantos puede ofrecer la naturaleza europea.

Hacen un nido muy rudimentario, de palitos, en la horquilla de un árbol en el que cría dos pichones. Se alimentan a base de granos, bellotas y algunos frutos.

Ezkur eta pagatxa askoko urteetan, talde batzuek gure artean igarotzen dute negua. Dena den, migratzaileen kopuru handiena (hainbat milioi hegazti dira) Iberiar Penintsulako hego-mendebaldera joaten da, larre bihurtutako artadi eta artelatz-basoetara: Toledora, Extremadurara eta Portugalera. Han ezkurdiz elikatzen dira, azaroa eta otsaila artean. Toki horietan, lo egiteko gune izugarri handiak hartzen dituzte. Gune horietan, milioi bat inguru hegazti elkar daitezke, eta haiek ikustea Europako naturak eskain dezakeen ikuskizunik erakargarrienetakoa da.

Habi bakuna egiten dute, makilatxoek, zuhaitzaren urkilan, eta, han, bi usakume hazten dituzte. Aleez, ezkurdiz, eta fruituez elikatzen dira.



## OTRAS AVES

### COLÚMBIDOS

La Paloma Torcaz y la Paloma Zurita (*Columba oenas*) son aves de interés cinegético que se cazan sobre todo durante la migración otoñal, desde puestos fijos o «palomeras» ubicados en laderas y collados por los que cruzan los bandos.



Pago usoa eta Txoloma (*Columba oenas*) interes zinegetiko handiko hegaztiak dira. Udazkeneko migrazioan, batez ere, ehizatzen dituzte, uso-taldeek igarotzen dituzten mendiko lepo edo magaletan kokatutako usategietan.

## BESTE HEGAZTI BATZUK





## CORACIIFORMES

### ABUBILLA



Representantes del orden Coraciiformes son  
el Martín Pescador (*Alcedo atthis*), la Carraca (*Coracias garrulus*), el Abejaruco Común (*Merops apiaster*)  
y la Abubilla (*Upupa epops*)

Koraziiformeen ordenan sartzen dira  
martin arrantzalea (*Alcedo atthis*), karraka (*Coracias garrulus*), erlatxoria (*Merops apiaster*)  
eta argi-oilarra (*Upupa epops*).

## KORAZIFORMEAK

### ARGI OILARRA

#### Abubilla (Argioilarra)

##### *Upupa epops*

Talla 28 cm. Es un ave de presencia estival.

Inverna en la zona tropical de Africa, aunque algunos individuos se quedan ya en la parte mediterránea europea.

El área de cría abarca casi toda Europa, aunque va haciéndose más escasa según avanzamos hacia el norte.

Falta en los países escandinavos, Dinamarca e Islas Británicas.

La mayor densidad la dan las zonas circunmediterráneas.

En Euskal Herria es común en el valle del Ebro

y de cría esporádica en la vertiente cantábrica.

Muy común en los pasos en toda nuestra geografía.

Llega migrando muy temprano, ya en marzo, y el paso se prolonga hasta primeros de mayo.

Es, también, madrugadora en el paso otoñal.

Ya a finales de julio pueden verse algunos migrantes.

El grueso de la migración tiene lugar en agosto-setiembre por nuestra zona.

Es ave de terrenos abiertos con árboles salpicados, cultivos, praderas, viñedos y olivar, etc.

Busca su alimento en el suelo, donde captura toda clase de animalillos como saltamontes, mariposas, ciempiés, arañas, lombrices, hormigas y moscas.

Anida en agujeros de árboles viejos o muros, en los que acumula algunos materiales sin que pueda decirse que construye nido. Pone 5-8 huevos color crema.

Los pollos nacen a los 18 días y vuelan del nido tras 3-4 semanas.

Es característico el olor nauseabundo de los nidos de esta especie, sobre todo cuando tienen pollos ya crecidos. Este olor ha contribuido a crear la leyenda de que la abubilla forra el nido de excrementos, cosa que no es cierta.

El mal olor se debe a una secreción de la glándula uropigial de los pollos. La costumbre de acudir a hurgar en los excrementos, sobre todo de vacuno, se debe a que allí encuentra numerosos insectos coprófagos y sus larvas, que forman parte de su alimentación. Su canto, el conocido «up-up-up»,

es monótono pero llamativo y audible a gran distancia.

Tiene un vistoso plumaje pardo rosado con las alas y cola barreadas de blanco sobre fondo negro.

Su cabeza está coronada por un largo moño que abre y cierra cuando se halla excitada. Pico largo y curvado.

Como ave insectívora se halla protegida por la ley.



#### Argi oilarra (Abubilla)

##### *Upupa epops*

28 cm neurtzen ditu. Hegazti udatiarra da.

Afrikako eremu tropikalean igaro ohi du negua. Dena den, ale batzuk Europako Mediterraneo aldean geratzen dira.

la Europa osoan umatzen da, baina urriagoa da iparraldean. Adibidez, Eskandinaviako herrialdeetan, Danimarkan edo Britainiar Uharteetan ez da ageri. Argi-oilar kopururik handiena Mediterraneo Itsasoaren inguruko eremuetan bizi da.

Euskal Herriari dagokionez, ohikoa da Ebro ibaiaren ibarrean, eta bikoteren bat umatzen da Kantauriko isurialdean ere. Halaber, Euskal Herri osoan ikus daiteke migrazio-aldian.

Migrazioa goiz hasten du, martxoan dagoeneko ikus daiteke, eta maiatzaren hasieraraino luzatzen du.

Udazkeneko migrazioa ere goiz egiten du. Uztailaren bukaera aldera jada migratzaile batzuk ikus daitezke. Euskal Herritik, abuztua eta iraila artean igarotzen dira gehienak.

Esparru irekietako hegaztia da: zuhaitz sakabanatuak dituztenak, labore-lurrak, zelaiak, mahastiak, olibondoak eta abar.

Elikagaiak lurrian bilatzen ditu, eta, han, mota guztietako animalia txikiak harrapatzen ditu: matxinsaltoak, tximeletak, ehunzangoak, armiarmak, zizareak, inurriak eta euliak.

Zuhaitz zaharretako edo harresietako zuloetan jartzen du habia.

Material batzuk pilatzen ditu horretarako, baina, berez, ezin da esan habiarik eraikitzen duenik.

Krema-koloreko 5-8 arrautza inguru erruten ditu.

Txitat 18 egunera jaiotzen dira, eta hiruzpalau astera hasten dira hegan egiten.

Espeziearen bereizgarritzat jotzen da haren habien kirats nazkagarria, txitat nahiko hazita daudenean, batez ere.

Usain hori dela-eta, esaten da argi-oilarrak bere habia gorotzez estaltzen duela, baina ez da egia. Usain txarraren jatorria txitek glándula uropigialek botatzen duten jariakinean dago.

Halaber, gorotzak, behienak batez ere, arakatzeko ohitura du, horien artean elikatzeko funtsezkoak dituen intsektu koprofago eta larba ugari aurkitzen dituelako. «Up-up-up» moduko txio ezaguna du; monotonoa da, baina oso deigarria, eta oso urrunetik ere entzun daiteke. Luma arre-arrosa ikusgarriak ditu, eta, hego eta buztan beltzen gainean, zerrenda zuriak ditu. Buruaren gainean, motots luzea du, eta bildu eta zabaltu egiten du asaldatzen denean. Moko luzea eta kakotua du.

Hegazti intsektujale guztiak bezala, legez babestutako espeziea da.



## OTRAS AVES

### ABUBILLA



## BESTE HEGAZTI BATZUK

ARGI OILARRA





## OTRAS AVES

### CUCO COMÚN Y VENCEJO

#### *Cuco Común (Kukua)*

##### *Cuculus canorus*

El **Cuco Común** es un ave muy discreta, del tamaño de una tórtola pero rara vez entrevista entre el ramaje de los bosquetes y setos que habita. Sin embargo, muy pocos ignorarán su monótono y distintivo canto, emitido con insistencia y convertido en un reclamo más de la primavera. Y es que esta ave migradora permanece en nuestro territorio entre abril y agosto: “si para el 15 de abril no viene el pecu, o se ha muerto el pecu o viene la fin”, reza un refrán.

Insectívoro y devorador de orugas, su peculiaridad más llamativa es su reproducción. Parasita los nidos de pequeños pájaros, en los que deposita su propio huevo.

El pollo, al nacer, expulsará a los otros inquilinos y será criado por sus “padres adoptivos”, ajenos al engaño.



#### **Kukua (Cuco Común)**

##### *Cuculus canorus*

**Kukua** oso hegazti zuhurra da.

Usapalaren tamaina du, baina oso gutxitan antzeman dakiok bizigunetzat dituen zuhaiztien edo heskaen hostoen artean.

Dena den, guztiok ezagutzen dugu haren txio monotonoa eta bereizgarria. Etengabe egiten du txio, eta udaberriaren deia beste isletako bat da. Hain zuzen, hegazti migratzaile hori apirila eta abuztua artean bizi da Euskal Herrian.

«Andra Mari martxokotan kuku, San Pedrotan mutu» dio esaera zaharrak.

Intsektuak eta beldarrak jaten ditu, eta ugaltzeko modua da haren ezaugarriarik deigarriena. Izan ere, beste txoritxo bazarroia da, eta horien habietan uzten du bere arrautza. Kukuaren txitak, jaiotzean, beste txitak botatzen ditu habiatik, eta bere «adopzio-gurasoek» hazten dute, engainuaz ohartu gabe.



## BESTE HEGAZTI BATZUK

### KUKUA ETA SORBELTZ ARRUNTA



#### Vencejo Común (Sorbeltz Arrunta)

##### *Apus apus*

Los vencejos, igualmente migradores, son reputados especialistas de la vida aérea. Comen, beben y copulan en vuelo, en realidad posándose tan sólo para construir el nido, incubar y criar a los pollos. De hecho, sus largas alas y patas reducidas les convierten en francamente torpes si, por accidente, caen al suelo.

A los populares vencejos comunes, que alegran con sus carruseles y gritos nuestros pueblos y ciudades, se suma el **Vencejo Real** (*Apus melba*) mucho más escaso y ocupante de cantiles rocosos.



#### Sorbeltz arrunta (Vencejo Común)

##### *Apus apus*

Sorbeltzak ere migratzaileak dira, eta ezin hobeki moldatzen dira airean bizitzeko. Airean, jan, edan eta kopulatzen dute, eta habia eraiki, arrautzak errun eta kumeak hazteko soilik pausatzen dira. Izan ere, hego luzeak eta hanka txikiak dituenaz, oso baldarra da ustekabeen lurrera erortzen denean.

Gure herriak eta hiriak beren hegaldi ikusgarriekin eta txioekin alaitzen dituzten sorbeltz arruntez gain, **malkar-sorbeltza** (*Apus melba*) ere badago. Askoz urriagoa da, eta labar harritsuetan bizi da.





## OTRAS AVES

### CHOTACABRAS Y ABEJARUCO

#### Chotacabras Gris (Zata Arrunta)

##### *Caprimulgus europaeus*

Talla: 27 cm.

El Chotacabras Gris es un ave casi invisible durante el día.

Pasa las horas de luz inmóvil sobre el suelo o en una rama gruesa, donde su colorido pardo grisáceo, densamente salpicado de pardo oscuro y amarillento, le proporciona un camuflaje perfecto.

Entra en actividad al anochecer, volando a la caza de insectos, que captura en el aire. Es también de noche cuando deja oír su monótono canto, un runruno prolongado: trrrrr... que se alarga hasta por cinco minutos.

Invernante en África, llega a Euskal Herria hacia abril-mayo para establecerse en páramos, pastizales, landas de helecho y argoma, linderos de bosque, etc., en los que cría y caza. Pone 2 huevos blancos, jaspeados en castaño y gris, en un hoyo del suelo.



#### Zata arrunta (Chotacabras Gris)

##### *Caprimulgus europaeus*

Neurria: 27 cm.

**Zata arrunta** ia ikusezina da egunez.

Argi-orduak geldirik igarotzen ditu, lurrean edo adar lodi batean pausatua. Izan ere, haren luma arre-grisaxkak, orban arre ilun eta horixka askorekin, kamuflaje perfektua dira.

Gauean hasten dira mugitzen, eta intsektuak ehizatzeari ekiten diote; airean harrapatzen dituzte. Gauean ere, haren txio monotonoa entzun daiteke: ia bost minutu irauten duen trrrrr... urruma luzea.

Negua Afrikan igarotzen du, apirila eta maiatza aldera iristen da Euskal Herrira, eta, besteak beste, lur mortuetan, zelaietan, iratze-zakardietan eta otadietan eta basoetako mugetan kokatzen da, eta han umatu eta ehizatzen du. 2 arrautza zuri erruten ditu lurreko zulo batean, gaztaina eta gris koloreko orbanekin.



## BESTE HEGAZTI BATZUK

### ZATA ARRUNTA ETA ERLATXORIA

#### Abejaruco Común (Erlatxoria)

##### *Merops apiaster*

Es un ave de vivos colores que prodiga su presencia en los paisajes mediterráneos, zonas llanas con taludes terrosos en los que excava su nido. Este consiste en un largo túnel, de 1-2 metros de longitud, con una cámara final. Es migrador y colonial, y su nombre deriva de su alimento favorito, los insectos voladores: abejas, avispas, libélulas, coleópteros...

Los espectaculares colores de este ave nos hablan de su origen tropical, donde hay otras muchas especies del mismo género. Precisamente regresa al África subsahariana a pasar el invierno, cuando en nuestras latitudes cesa la actividad de los insectos aéreos. Su aparición a finales de abril es anunciada con la audición de sus gritos, unos "fruit, fruit" que emiten en vuelo o desde posaderos.



#### Erlatxoria (Abejaruco Común)

##### *Merops apiaster*

Kolore biziko hegaztia da eta ugaria da Mediterraneoko paisaietan. Izan ere, eremu lauetako lur-ezpondetan hondeatzen du, habia egiteko.

Metro bat edo biko tunel luzea egiten du, eta ganbera bat du bukaeran. Migratzailea da eta kolonietan bizi da. Haren izenaren jatorria haren elikagai gogokoenetan bilatu behar da, hots, intsektu hegalariaengan: erleak, liztorrak, sorgin-orratzak, koleopteroak eta abar.


Hegazti horren kolore ikusgarriak haren jatorri tropikalaren isla dira. Izan ere, inguru horretan, genero bereko hegazti asko ikus daitezke. Saharaz hegoalderako Afrikara itzultzen da negua igarotzera, gure artean intsektu hegalaririk ez dagoenean. Apirilaren bukaera aldera iristen da, eta orduan entzun daitezke haren txioak («fruit, fruit»), hegan edo pausatuta dagoela botatzen dituenak.





## PÍCIDOS

### PITO NEGRO



#### Pizidoak

**Okil ertaina** (*Dendrocopos medius*) da pizidorik urrienetako bat. Hain zuzen, Izkizko ameztian, Arabako Mendialdean, bizi da Europako talderik handiena.

**Okil txikia** ere (*Dendrocopos minor*) urria da, baina zabalduagoa dago baso eta landazabaletan.

Aitzitik, **lepitzulia** (*Jynx torquilla*) eta, batez ere, **okil handia** (*Dendrocopos major*) eta

**okil berdea** (*Picus viridis*) oso ugariak dira, eta mota askotako inguruetan bizi daitezke, baldin eta inguruan zuhaitzak badituzte. Bestalde, lepitzulia da taldeko migratzaile bakarra.

#### Pícidos

Un pícido sumamente escaso es El **Pico Mediano** (*Dendrocopos medius*), que cuenta en el toconal de Izquí, en la Montaña Alavesa, con una de las poblaciones más densas de Europa. Raro es también el **Pico Menor** (*Dendrocopos minor*), aunque más distribuido por bosques y campiñas.

Por el contrario, el **Torcecuello** (*Jynx torquilla*) —único migrador del grupo— y sobre todo el **Pico Picapinos** (*Dendrocopos major*) y el **Pito Real** (*Picus viridis*) son muy comunes, ocupando una gran variedad de ambientes a condición de que guarden una mínima cobertura arbolada.



## PIZIDOAK

### OKIL BELTZA

#### Pito Negro (Okil Beltza).

##### *Dryocopus martius*

De 46 cm de talla. Negro como un Cuervo y tamaño parecido al de la Corneja Negra.

Podría confundirseles, pero una llamativa mancha roja que cubre todo el píleo del macho y la parte posterior del mismo en la hembra, permite una fácil identificación del Pito Negro.

En vuelo, la trayectoria ondulada es menos notoria que en otros pícidos, pero suficiente para diferenciarlo de la Corneja Negra.


Es una especie forestal, que necesita bosques maduros o, al menos, con rodales viejos donde pueda hallar árboles corpulentos en los que excavar una cavidad adecuada a su considerable tamaño. No parece importarle, en cambio, el tipo de especies que lo compongan, pues ocupa tanto masas de planifolios como de resinosas o mixtas.

Anida en cavidades que perfora con su pico, fuerte como un cincel, en troncos gruesos y a bastante altura.

La puesta es de cuatro huevos blancos.

Es un gran consumidor de hormigas e insectos xilófagos, dieta que complementa en otoño-invierno con algunos frutos y semillas forestales.

En el Pirineo llega en altitud hasta el mismo borde del piso subalpino, anidando en el límite superior del arbolado (pinar de Pino negro de Larra), pero localizado también en zonas bajas. Lo hemos detectado a menos de 600 m en un arbolado añoso de Roble pedunculado.



#### Okil beltza (Pito negro).

##### *Dryocopus martius*

46 cm neurtzen ditu. Belea bezain beltza da, eta belabeltzaren tamaina du. Erraza litzateke, beraz, horiek nahastea.

Dena den, orban gorri bat dute: harrak kaskoan, eta emeak, berriz, kaskoaren atzealdean, eta, horri esker, modu argian bereiz daitezke okil beltzak. Hegan egiten duenean egiten dituen uhinak ez dira beste pizidoenak bezain nabarmenak, baina, hala ere, nahikoa dira belabeltzarengandik bereizteko.

Basoko espeziea da, eta baso helduak edo, behintzat, unada zaharrak dituztenak behar ditu, haren tamaina handirako egokia den zuloa egiteko bide ematen dioten zuhaitz sendoak dituztenak. Dena den, edozein motatako zuhaitzetako basoetan bizi daiteke, hala hostozabalekoetan, nola erretxinadunetan edo mistoetan.

Zizela bezain indartsua den mokoa du, eta harekin zulatutako hutsuneetan egiten du habia, enbor lodietan, eta garaiera handi samarretan. Lau arrautza zuri erruten ditu. Inurriak eta intsektu xilofagoak jaten ditu nagusiki, baina, neguan eta udazkenean, basoko fruitu eta haziez osatzen du elikadura.



Pirinioetan, landaredia bukatzen den mugaraino ere hel daiteke, eta, esaterako, Larrako pinu beltzeko basoan egiten du habia. Dena den, eremu baxuetan ere aurki daiteke. Adibidez, 600 metrotik behera dagoen haritz kanduduneko zuhaizti zahar batean ikusi da.





## PÍCIDOS

### PICO PICAPINOS



Secuencia de Pico Picapinos en un nido excavado en un tronco  
*Okil handiaren sekuentzia, enborrean zulatutako habia batean*

## PIZIDOAK

### OKIL HANDIA

#### Pico Picapinos (Okil Handia).

##### *Dendrocopos major*

Entre los picos de librea blanquinegra, resulta sin duda el más corriente.

No obstante, la manera más habitual de detectarlo no es a través de su observación, ya que permanece casi siempre en las copas y tramos altos de los árboles, a la búsqueda de larvas de insectos xilófagos.

Su “tamborileo”, emitido con golpes fuertes y rítmicos sobre una rama retumbante, constituye una señal de defensa de un territorio frente a otros congéneres.

Sus gritos son también bastante característicos, así como el hallazgo de sus perforaciones, talleres o nidos excavados en los troncos.

Como hemos dicho, es común en todas las comarcas con superficies forestales amplias, aunque en el caso de las plantaciones de coníferas necesita para ocuparlas que éstas se hallen en estado de madurez, y que los turnos de corta no sean excesivamente cortos. En las zonas más áridas se refugia en sotos fluviales, que son los medios que mantienen mayor cobertura arbolada.



#### Okil Handia (Pico Picapinos)

##### *Dendrocopos major*

Jantzi zuri-beltza duten okilen artean, ugariena da, zalantzarik gabe.

Dena den, hari antzemateko modurik errazena ez da ikusmena baliatzea. Izan ere, ia beti dago zuhaitzetako adaburuetan edo zati altuetan, intsektu xilofagoen larben bila.

Beraz, burrunba egiten duen adar bati emandako kolpe sendo eta erritmikoen «danbolin-jotzea» da haren ezaugarri nabarmenena, eta lurraldea espezie bereko kideengandik babesteko baliatzen du.

Haren txioak ere nahiko nabarmenak dira. Halaber, hark enborretan egindako zulo, lantegi eta habi franko ikus daitezke.

Esan bezala, baso zabalak dituzten eskualde guztietan aurki daiteke. Dena den, konifera-landaketen kasuan, zuhaitz helduetan bakarrik bizi da, eta mozketak sarriegi egiten ez badira. Eremu lehorragoetan, berriz, ibaien ondoko basoetan bizi dira, gunek horiek dituztelako zuhaitzik gehien.



## PÍCIDOS

### PICO DORSIBLANCO



#### Pico Dorsiblanco (Okil Gibelnabarra).


##### *Dendrocopos leucotos.*

Es de unos 25 cm de talla. Es una especie sedentaria, afincada en los bosques de haya y hayedo-abetal del Pirineo, siempre que cuenten con abundante madera vieja: árboles añosos, troncos muertos, tocones, etc., en los que proliferen los insectos xilófagos, base de su dieta.

La pequeña población pirenaica, verdadera reliquia glaciaria, ha evolucionado aislada del resto de los núcleos de población de la especie en Europa desde la retirada de los hielos, lo que le concede un notable interés.

Tiene gran parecido con el Pico Picapinos, del que se diferencia por su tamaño ligeramente mayor y, sobre todo, por la mancha blanca que, naciendo en la base de la cola, le cubre la mitad inferior del dorso. Como el resto de los picos, trepa con agilidad por los troncos sirviéndose de la cola como apoyo. Anida en árboles secos, en los que perfora con su fuerte pico una cavidad adecuada a su tamaño. Pone de 3 a 5 huevos.

Irati, Quinto Real, Anielarra, Lindus y Belagua son algunos de sus últimos refugios. El aislamiento de esta población, su baja densidad y la paulatina desaparición, «gracias» a las pistas y las motosierras, de los escasos rodales de bosque virgen nos hacen temer por el futuro de la especie.



#### Okil gibelnabarra (Pico dorsiblanco).

##### *Dendrocopos leucotos.*

25 cm inguru neurtzen ditu.

Espezie sedentarioa da, eta Pirinioetako pagadi eta izeidietan bizi da, baldin eta egur zaharra badute:

zuhaitz zaharrak, enbor hutsak, motzondoak eta abar.

Izan ere, hor intsektu xilofago asko dago,

eta horiek dira haren elikadura-iturri nagusia.

Pirinioetan bizi den talde txikia glaziarretako benetako harribitxia da. Izan ere, glaziazio handiak amaitu zirenetik, Europako gainerako aleetatik isolatuta eboluzionatu du, eta horrek bereziki interesgarri egin du.


Okil handiaren oso antzekoa da, baina handiagoa da, eta, gainera, orban zuria du, buztanaren muturrean hasi eta gibelaldearen beheko erdia estaltzen diona.

Gainerako okilen modura, trebetasun handiz igotzen da enborretan gora, buztanaren laguntzaz. Zuhaitz lehorretan egiten du habia, eta zulatu egiten ditu, bere tamainarako egokia den zuloa egin arte. 3-5 arrautza inguru erruten ditu.

Irati, Kintoa, Añelarra, Lindus eta Belagua dira espezie horren azken biziguneetako batzuk. Hainbat arrazoik bultzatzen gaituzte espeziearen etorkizuna zalantza jartzera: taldeak bakartuta bizitzea, dentsitate baxua eta mendiko pistek eta motozerrek eragin duten unaden eskasia.

PIZIDOAK


OKIL GIBELNABARRA





HEGAZTI PASERIFORMEAK

AVES PASERIFORMES









## Txoriak - Pájaros

Collalbas, bisbitas, zorzales, cogujadas, alcaudones, gorriones, escribanos, lavanderas, carboneros, carriceros, currucas, mosquiteros, aviones, herrerillos... La nómina de familias, géneros y especies que se integran en el orden de los **Paseriformes**, los vulgarmente llamados **pájaros**, es extensísima. Este grupo abarca aves del tamaño de un chochín o un reyezuelo, que apenas pesan 5 gramos, hasta el de un cuervo, cuya envergadura supera los 1,30 metros. Sin embargo, todos ellos tienen en común el desarrollo de un órgano fonador, la siringe, que les permite poseer un variado repertorio de trinos, cantos y voces, habitualmente empleados por los machos para establecer y defender su territorio, así como para atraer a las hembras.

Forzosamente, nuestra presentación del mundo de los pájaros no será completa. Son más de cien las especies que nidifican en nuestro territorio, y algunas más se añaden a la lista como invernantes o migrantes. La cornisa cantábrica representa, gracias a la suavidad relativa de su clima, una zona de invernada importante para muchas de ellas. Revisaremos más significativas, atendiendo a un criterio de presencia según ambientes, que no debe tomarse como regla fija a la hora de ubicarlas en un contexto ecológico.

Conviene señalar, al hablar de los pájaros, que su caza y captura no está permitida (salvo supuestos muy concretos y previa autorización expresa), y que asimismo es perseguible el empleo de métodos otrora extendidos, como la liga, las escopetillas de aire comprimido (precisamente llamadas “chimberas”) o las redes.

Buztanzuriak, txirtak, birigarroak, kutturlioak, antzandobiak, txolarreak, berdantzak, buztanikarak, kaskabeltzak, lezkariak, txinboak, txioak, enarak, amilotxak... Amaigabea da **paseriformeen** ordena, hots, guk **txori** gisa ezagutzen ditugunen taldea osatzen duten familiak, generoak eta espezieak. Talde horretan hainbat tamainatako hegaztiak sartzen dira: hasi 5 gramo soilik pisatzen dituen txepetx edo erregetxotik eta 1,30 m zabal izan daitekeen beleraino. Dena den, guztiek garatu dute siringea deritzon fonazio-organoa. Organo horri esker, txioen, kantuen eta soinuen erreperitorio zabala dute, eta, normalean, arrak erabiltzen du bere lurraldea ezarri eta defendatzeko, eta emeak erakartzeko.

Gure aurkezpenean, nahitaez, ezin izango ditugu txori guztiak azaldu. Izan ere, ehunetik gora espeziek egiten dute habia Euskal Herrian, eta, gainera, txori negutar eta migratzaileak ere etortzen dira. Kantauriko isurialdea negua igarotzeko toki egokia da txori askorentzat, hango klima leuna dela-eta. Hala, espezie adierazgarrienak jorratuko ditugu, inguruneen araberrako irizpidea baliatuta. Dena den, irizpide hori ez da bete-betean arautzat jo behar espeziea inguru ekologiko bati lotzeko orduan.

Bestalde, txoriei buruz hitz egitean, komeni da gogoratzea debekatuta dagoela haiek harrapatu edo ehizatzea (salbuespenak salbuespen, eta aurretik espresuki baimendu ez bada). Halaber, ez dago baimenduta garai batean oso ohikoak ziren metodoak erabiltzea, hala nola: liga, aire konprimituko eskopeta txikiak (*txinberak* deitzen zaie, hain zuzen) eta sareak.

### AVES DE MONTAÑA

Todas las collalbas, entre las que también mencionaremos a las mediterráneas.

- **Collalba Rubia** (*Oenanthe hispanica*)
- **Collalba Negra** (*Oenanthe leucura*).

Se identifican con presteza gracias al dibujo de «T» negra invertida sobre fondo blanco que forman las plumas de su cola.

Otros miembros de la comunidad de aves montañas son:

- el **Roquero Rojo** (*Monticola saxatilis*)
- el **Roquero Solitario** (*Monticola solitarius*).

### MENDIKO HEGAZTIAK

Buztanzuri guztiak ezaugarri batek bereizten ditu: alderantzizko «T» formako marrazki beltza dutela buztanean, luma zurien gainean.

Mediterraneo aldeko buztanzuriak dira, esaterako.

- **Buztanzuri horia** (*Oenanthe hispanica*)
- **Buztanzuri beltza** (*Oenanthe leucura*).

Mendiko txoriak ere badira:

- **harkaitz-zozo gorria** (*Monticola saxatilis*)
- **harkaitz-zozo urdina** (*Monticola solitarius*).

## PÁJAROS DE MONTAÑA - MENDIKO TXORIAK

### ACENTOR ALPINO - MENDI TUNTUNA

#### Acentor Alpino (Mendi Tuntuna) *Prunella collaris*

De 18 cm de talla.

Es un migrador parcial, que en nuestro país parece limitarse a descender a cotas más bajas en invierno.

Anida y vive en el piso alpino, en pedrizas y derrubios al pie de cantiles, zonas rocosas, etc., que alternen con zonas de pastizal alpino, en cotas superiores a los 1.800 m.


Es pues una especie típica de la alta montaña, pero en lo más crudo del invierno puede vérselo en sierras periféricas, a más baja altitud. Se ha llegado a verle en Alaitz, Aralar, Aizkorri, incluso por debajo de los 1.000 m.

Confiado y poco receloso ante la presencia humana, se deja observar a corta distancia.

Es parecido al Acentor Común, pero mayor y con la garganta blancuzca y moteada de negro.

Cría en agujeros y fisuras de rocas en un nido hecho con musgo, líquenes y hierbas. A veces lo sitúa también entre la vegetación, en general próximo al suelo.

Su alimentación es a base de semillas e insectos.



#### Mendi tuntuna (Acentor alpino) *Prunella collaris*

18 cm neurtzen ditu. Migratzaile partziala da, eta, Euskal Herrian, gune baxuetara mugitzen da neguan.

Mendian bizi eta egiten du habia, labarren, eremu harritsuen eta antzekoen azpian diren harritza eta higakinetan, eta ingurune horiek 1.800 metrotik gora dauden goi-mendiko zelaiekin tartekatzen ditu. Hala, goi-mendiko espezie peto-petoa da, baina, negu gorrian, mendilerro baxuagoetan ikus daiteke. Alaitzen, Aralarren, Aizkorri ikusi izan dute, baita 1.000 metrotik beherako tokietan ere.

Gizakiarekin fidatzen da eta ez du harekiko susmo txarrik izaten; hartara, gertutik beha diezaieten uzten du.

Tuntuna arruntaren antza du, baina handiagoa da eta ezarri zuria du, orban beltzekin.

Harrietako zulo eta pitzaduretan umatzen da, goroldioz, likenez eta belarraz egindako habian. Batzuetan, landaredi artean jartzen du habia, baina, lurretik gertu ia beti. Haziz eta intsektuz elikatzen da.





## PÁJAROS DE MONTAÑA

### COLIRROJO TIZÓN

#### Colirrojo Tizón (Buztangorri Iluna)

##### *Phoenicurus ochruros*

14 cm de talla.

Es sedentario en nuestras latitudes.

Esta especie se acantona en cualquier tipo de zona rocosa: acantilados, pedrizas, canteras, etc., lo mismo en la alta montaña que al borde del mar. Ocupa, incluso, edificios, con tal de que le ofrezcan en sus muros de piedra agujeros en los que instalar su nido.

En el Pirineo se han hallado parejas instaladas a más de 2.900 m.

Su estampa se hace familiar a los montañeros, posado sobre una roca, mientras emite su breve canto salpicado de curiosas notas raspantes y agita nerviosamente la cola roja. Puede confundirse con su congénere el Colirrojo Real, pero es de colores menos vistosos, oscuro, casi negro el macho con solo una mancha clara, blanco sucio, en las alas.

Es insectívoro. Anida en agujeros de rocas, muros, edificios, y peñas, que rellena de musgo, hierbas y raicillas. Incuba de 4 a 6 huevos.



#### Buztangorri iluna (Colirrojo Tizón)

##### *Phoenicurus ochruros*

14 cm neurtzen ditu. Sedentarioa da Euskal Herrian.

Espezie hori edozein eremu harritsutan bizi da: labarretan, harritzetan, harrobietan eta abarretan, hala goi-mendian nola itsas ertzean.

Eraikinetan ere koka daiteke, baldin eta, horien harritzko paretetan, habia jartzeko zuloak aurkitzen baditu. Pirinioetan, 2.900 metrotik gorako eremuetan kokatutako bikoteak aurkitu dira.

Haren irudia ezaguna da mendizaleentzat. Izan ere, maiz ikus daiteke harri batean pausatua, nota urratu bereziz ziprztindutako txioa eginez, eta buztan gorria modu urdurian mugitzen duela. Haren kide den buztangorri argiarekin nahasteko aukera dago, baina haren koloreak ez dira hain biziak. Arra, esaterako, beltz-beltza da, eta kolore zuri zikineko orban argi bakarra du hegoetan.

Intsektujalea da. Arroketako, harresietako, eraikinetako eta harkaitzeko zuloetan jartzen du habia, eta goroldioz, belarrez eta sustrai txikiz estaltzen du.

4-6 arrautza inguru erruten ditu.



## MENDIKO TXORIAK

### BUZTANGORRI ILUNA





## PÁJAROS DE MONTAÑA

### COLLALBA GRIS

#### Collalba Gris (Ipurzuri Arrunta)

##### *Oenanthe oenanthe*

Es un pequeño pájaro migrador, que frecuenta los terrenos despejados, con cobertura herbácea o pastizal, en los que abundan afloramientos rocosos.

No obstante, en época de paso se la puede ver en otro tipo de ambientes desarbolados. Aprovecha para nidificar cavidades de muros o piedras.



#### Buztanzuri arrunta (Collalba Gris)

##### *Oenanthe oenanthe*

Txori migratzaile txikia da; belar-estaldura duten esparru irekietan edo belardi harritsuetan bizi ohi da. Dena den, migrazio-aldian, zuhaitzik gabeko beste ingurune batzuetan ere ikus daiteke. Harresietako edo harrietako zuloak baliatzen ditu habia jartzeko.



MENDIKO TXORIAK

IPURZURI ARRUNTA





## PÁJAROS DE MATORRAL

### ALCAUDÓN DORSIRROJO



#### Antzandobiak

Antzandobiak hegazti-mota berezia dira, eta, nolabait ere, harraparien antzera jokatzen dute. Izan ere, antzandobiak harrapari indartsuak dira (beren tamaina kontuan hartuta), eta intsektuak, narrasti txikiak, mikrougaztunak eta are txoritxoak ehizatzen dituzte. Harrapakinak paldoztatzeko ohitura bitxia dute, eta despentsa modukoak egiten dituzte elorrietan, sasietan eta zuhaixketan, horien arantzak aprobetxatuz.

#### Alcaudones

Los alcaudones son un grupo peculiar de pájaros, con una cierta convergencia de caracteres con las rapaces. En efecto, los alcaudones son depredadores potentes -sobre todo en relación a su tamaño- de insectos, pequeños reptiles, micromamíferos e incluso pajarillos. Una costumbre curiosa es la de empalar a sus víctimas, configurando a modo de despensas en espinos, zarzas y arbustos con púas que faciliten la labor.

## SASJETAKO TXORIAK

### ANTZANDOBI ARRUNTA

#### Alcaudón Dorsirrojo (Antzandobi Arrunta)

##### *Lanius collurio*

El Dorsirrojo es, con mucho, el más común de nuestros alcaudones, y ocupa campiñas y setos, ocultando sus nidos entre la maleza y cazando en pastizales, generalmente al acecho desde posaderos.

Es migrador, inverna en el África subsahariana, a la que llega no a través de la ruta que sería más corta, sino cruzando el Mediterráneo oriental.

Esta especie podría servir como indicador del estado de conservación de la campiña cantábrica, ya que su posible regresión se relacionaría con el deterioro de este medio.

Nidifican fundamentalmente en el ámbito mediterráneo los alcaudones:

- Alcaudón Real (*L. meridionalis*)
- Alcaudón Común (*L. senator*)




#### Antzandobi arrunta (Alcaudón Dorsirrojo)

##### *Lanius collurio*

Antzandobi arrunta da, zalantzarik gabe,  
Euskal Herriko antzandobirik ugariena.  
Landazabaletan eta heskaletan bizi da, eta sastraken artean  
ezkutatzen du habia. Larreetan ehizatzen du, eta pausalekuetan  
egon ohi da harrapakinak noiz agertu zain.  
Migratzailea da, eta Saharaz hegoaldeko Afrikan igarotzen du  
negua. Lurralde horietara iristeko ez du biderik laburrena  
baliatzen; aitzitik, ekialdeko Mediterraneotik joaten da.  
Espezie horrek kantauriar landazabalaren  
kontserbazio-egoeraren adierazle gisa balio dezake.  
Izan ere, haren kopurua murriztu izana ingurune horren  
hondatzeari lotuta egon daiteke.

- Antzandobi handiak (*L. meridionalis*)
- Antzandobi arruntak (*L. senator*)  
isurialde mediterranearean jartzen ditu habiak.





## PÁJAROS DE MATORRAL




### Ruiñeñor Comùn (Urretxindorra)

#### *Luscinia megarhynchos*

¿Quién no ha oído hablar del afamado canto del Ruiñeñor? Inspiración de poetas y melodía de enamorados, el Ruiñeñor es un pajarillo de tonos pardos, poco vistosos, además muy escondedizo, pues se pasa la vida oculto entre malezas. Para compensar nos brinda su armonioso canto, que emite de día pero también al atardecer y en horas nocturnas.

Como otros insectívoros, es un migrador que inverna en África subsahariana. En nuestro territorio nidifica casi exclusivamente en la vertiente mediterránea.

A pesar de su nombre, el Ruiñeñor Bastardo (*Cettia cetti*) no tiene más parentesco con el Ruiñeñor Comùn que su aspecto externo, que es semejante. Prefiere espesuras al borde de ríos y arroyos, y su canto monótono no es desde luego tan sugerente.



### Urretxindorra (Ruiñeñor Comùn)

#### *Luscinia megarhynchos*

Nork ez du izan urretxindorraren kantu ezagunaren berri? Poeten inspirazio-iturri eta maiteminduen melodia-lagun, urretxindorra arre koloreko txori txikia da. Ez da ikusgarria, eta ezkutatuta egon ohi da, sasi artean gordeta. Horren ordainetan, baina, kantu harmoniatsua egiten du, hala egunez, nola iluntzean eta gauez.

Beste hegazti intsektujaleen antzera, migratzailea da, eta Saharaz hegoaldeko Afrikan igarotzen du negua. Euskal Herrian, habia ia-ia isurialde mediterraneanrean soilik jartzen du. Antzeko izena badu ere, **errekantxindorrak** (*Cettia cetti*) urretxindorraren duen kidetasun bakarra kanpoko itxura da. Ibaien eta erreken inguruko landarediak nahiago ditu, eta haren kantu monotonoa ez da batere erakargarria.



## SASIETAKO TXORIAK



### Mirlo Común (Zozo Arrunta)

*Turdus merula*

Talla: 25 cm.

Es capaz de instalarse en cualquier tipo de terreno, siempre que encuentre un mínimo de cobertura.

El Mirlo es un ubiquista distribuido por todo el país.

El macho tiene su plumaje negro y el pico amarillo.

La hembra tiene el plumaje pardo oscuro con el pico pardo características inconfundibles

Busca en el suelo toda clase de gusanos, lombrices, insectos y sus larvas, y frutos y semillas en los árboles y arbustos.

Emplaza el nido en sitios muy variados: árboles, arbustos, muros con hiedra. Como otros túrdidos,

acostumbra forrarlo interiormente de barro.

Pone de 3 a 5 huevos azul-verdoso punteados de pardo.

Son sedentarios los mirlos de aquí, pero es migrador parcial más al norte. Su población se mantiene con densidad aceptable.



### Zozo arrunta (Mirlo Común)

*Turdus merula*

Neurria: 25 cm. Edozein ingurunetan bizi daiteke, baldin eta nahikoa estaldura badu inguruan.

Zozoa Euskal Herri osoan aurkitu daiteke.

Arrak luma beltzak eta moko horia ditu. Emeak, berriz, luma arre ilunak eta moko arrea ditu.

Beraz, ezin nahasizko ezaugarriak dira.

Mota guztietako zizareak, intsektuak eta lurbak bilatzen ditu lurrian, eta fruituak eta haziak, berriz, zuhaitz eta sasietan.

Hainbat tokitan jar dezake habia: zuhaitzetan, sasietan, huntza duten harresietan... Beste hegazti turdidoen modura, lokatzez estaltzen du habiaren barnealdea.

Hiru eta bost arrautza bitartean erruten ditu, urdin-berdexka orban arreekin.

Euskal Herriko zozoa sedentarioa da, baina iparralderago bizi dena migratzaile partziala da. Haren kopurua nahiko handia da.





## PÁJAROS DE MATORRAL

### PETIRROJO

#### **Petirrojo (Txantxangorria)**

##### *Erithacus rubecula*

Talla: 14 cm. Muy común en la vertiente cantábrica y Pirineos, disminuye su población al adentrarnos en el área seca, ocupando en ella las umbrías y sotos más húmedos.

Es ave de bosque, donde ocupa de preferencia el estrato arbustivo. Se distribuye también por setos, bosquetes, huertos y jardines.

Es clásica su figura invernal, con el plumaje esponjado, cantando erguido sobre un punto despejado y señero.

Es en esta época cuando se le detecta más fácil, pues durante la cría se vuelve discreto y escondedizo, a parte de que su población aumenta durante la época fría con la llegada de migrantes.

Es sedentario en Euskal Herria.

Se alimenta de insectos, gusanos, lombrices y algunas bayas. Coloca su nido en hoyos de muros, taludes, etc.

Pone de 3 a 6 huevos, en general manchados de pardo.



#### **Txantxangorria (Petirrojo)**

##### *Erithacus rubecula*

Neurria: 14 cm. Oso ugaria da Kantauriko isurialdean eta Pirinioetan, eta haren kopurua murriztu egiten da eremu lehorrean murgiltzen garan heinean.

Izan ere, azken eremu horretan, gune itzaltsuetan eta ibar-baso hezeetan aurki daiteke soilik.

Basoko hegaztia da, eta zuhaixkaz osatutakoak ditu gustukoen.

Halaber, heskaietan, zuhaiztietan, baratzeetan eta lorategietan bizi daiteke.

Ohikoa da txantxangorria neguan ikustea, puntu ireki eta nabarmenean pausatuta nola abesten duen entzutea eta haren luma harroez gozatzea.

Izan ere, urtaro hori da txantxangorria ikusteko aproposena, umatzen denean zuhurki jokatzeko baitu eta ezkutatzeko joera baitu. Halaber, kontuan izan behar dugu, neguan beste txantxangorri migratzaile batzuk ere iristen direla gurera.

Euskal Herrian, baina, sedentarioa da. Intsektuak, zizareak eta zenbait baia-mota jaten ditu.

Harriesietako, ezpondetako eta abarretako zuloetan jartzen du habia.

3-6 arrautza inguru erruten ditu, orban arreak izan ohi dituztenak.



SASIETAKO TXORIAK

TXANTXANGORRIA





## PÁJAROS DE MATORRAL

### CHOCHÍN



## SASJETAKO TXORIAK

### TXEPETXA

#### Chochín (Txepetxa)

#### *Troglodytes troglodytes*

Talla: 10 cm. Diminuto

(entre nuestras aves solo el Reyzeuelo Listado es menor que él), pero tan activo y ruidoso que es difícil que pase desapercibido, a pesar de su discreto color pardo.

El Chochín se esconde como un ratón entre la maleza, pilas de leña y ramas secas, zarzas y setos, para, de pronto, plantarse erguido, con la cola tiesa, sobre una ramilla y, sorprendernos con un canto sonoro, estridente, desproporcionado a su tamaño.

Es pájaro de sotobosque, de espesuras, jardines y huertos con arbustos, matorrales, setos, de preferencia en zonas bajas, colinas y, montaña media. Común en todo el País Vasco pero más frecuente en la zona húmeda, arbolada, que en la seca. Sedentario. Es un polígamo empedernido, el macho construye varios nidos en forma de bola con musgo, hierba y hojas, a los que intenta atraer varias hembras. Sobre 6 huevos blancos con pequeños puntos negros. Insectívoro.



#### Txepetxa (Chochín)

#### *Troglodytes troglodytes*

Neurria: 10 cm. Oso-oso txikia da

(Euskal Herriko hegaztien artean, erregetxo bekainzuria soilik da txikiagoa), baina, oso aktiboa eta zaratzua denez, nabarmendu egiten da, arde kolore diskretua izanik ere.

Txepetxa, saguaren gisara, sastraken, egur-pilen, adar lehorren, sasien eta heskaien artean ezkutatzen da, eta, bat-batean, harro-harro eta buztana tente duela azaltzen da adar baten gainean, eta haren tamainarekin bat ez datorren txio garratza botatzen digu tupustean.

Oihanpean, eremu estalietan eta zuhaixkak, sastrakak eta heskaiak dituzten lorategi eta baratzetan bizi da, eta nahiago ditu eremu baxuak, muinoak eta garaiera ertaineko mendiak.

Euskal Herri osoan bizi da, baina eremu lehorrean baino ugariagoa da eremu hezeko zuhaiztietan. Sedentarioa da.

Halaber, poligamo peto-petoa da, eta arrak bola-formako hainbat habi egiten ditu goroldioa, belarra eta hostoak baliatuta, hainbat eme erakartzeko asmoz.

6 bat arrautza zuri erruten ditu, puntu beltz txikiekin.

Hegazti intsektujalea da.





## PÁJAROS DE BOSQUE

### TREPADOR AZUL

#### Trepadores

Los trepadores disponen sus nidos en el interior de huecos de troncos. La preservación de árboles viejos en los bosques es fundamental para mantener una fauna diversa. La explotación forestal debiera tener en cuenta este criterio.



#### Txori igokariek

Txori igokariek enborretako zuloen barruan jartzen dute habia. Basoetan zuhaitz zaharrak egon daitezen bermatzea funtsezkoa da fauna askotarikoa izateko. Beraz, baso-ustiapenak kontuan izan behar luke irizpide hori.

## BASOKO TXORIAK

### GARRAPOA

#### Trepador Azul (Garrapoa)

##### *Sitta europaea*

Talla: 14 cm. Es otro pájaro forestal común, pero no con la densidad de los páridos, en los bosques caducifolios del Pirineo y área húmeda del País Vasco. Es escaso en los pinares de silvestre pirenaicos.

Le caracteriza su forma de trepar por los troncos y ramas gruesas, sin apoyarse en la cola y lo mismo hacia arriba que hacia abajo o en horizontal.

Anida en agujeros de troncos, cuya boca suele estrechar con barro. Consume, además de escarabajos xilófagos y sus larvas, también otros invertebrados, además de numerosas bellotas, hayucos, avellanas y frutos de cáscara dura, que encaja en una grieta para luego abrirlos a picotazos. Es sedentario.



#### Garrapoa (Trepador Azul)

##### *Sitta europaea*

Neurria: 14 cm. Basoko txori ugaria da Pirinioetako eta Euskal Herriko eremu hezeko zuhaitz hostogalkorreko basoetan. Dena den, espezie horren kopurua ez da hegazti paridoena bezain handia. Urria da Pirinioetako basa-pinudietan.

Enbor eta adar lodietan gora ibiltzeko duen modua da haren ezaugarriarik behinena. Izan ere, ez da buztanaz laguntzen, eta trebetasun handiz mugitzen da bai gora, bai behera, bai horizontalean.

Enborretako zuloetan jartzen du habia, eta lokatza jartzen du zuloaren ahoan, estuago izan dadin. Kakalardo xilofagoez eta haien larbez gain, beste ornogabe batzuek ere elikatzen da. Halaber, ezkur, pagatxa, ur eta azal gogorreko fruitu franko jaten ditu. Hain zuzen, fruitu horiek pitzadura batean sartu, eta, gero, mokoka irekitzen ditu. Hegazti sedentarioa da.



## PÁJAROS DE BOSQUE




### Zorzal Común (Birigarro Arrunta)

#### *Turdus philomelos*

Talla: 23 cm. Es conocido por **Malviz** en muchas zonas. Es muy común en el área húmeda, más escaso en el Pirineo según nos alejamos de la parte atlántica y en la zona mediterránea presente aunque escasa, sólo en los enclaves más húmedos.

Es sedentario, y se instala generalmente en zonas arboladas, pero sale con frecuencia a terreno despejado, de praderas, donde rebusca entre las hierbas gusanos, lombrices y caracoles. Suelen cascar los caracoles golpeándolos contra una piedra, dejando alrededor de ella acúmulos de cáscaras que delatan la presencia de esta ave.

No hay que confundirla con el **Zorzal Alirrojo** (*Turdus iliacus*), muy parecido, pero que no cría aquí, aunque llega, a partir del otoño, en numerosos bandos de invernada. Este es menor (21 cm) y con un colorido castaño rojizo bajo el ala que no tiene el Zorzal Común.



### Birigarro arrunta (Zorzal Común)

#### *Turdus philomelos*

Neurria: 23 cm. Leku askotan, **durdula** esaten diote.

Oso ugaria da eremu hezean, baina eskasagoa da Pirinioetan, esparru atlantikotik urruntzen garen heinean.

Esparru mediterraneanearan ere bizi da, baina urria da, eta gune hezeenetan soilik aurkitu daiteke.

Sedentarioa da, eta zuhaiztiak ditu gustuko.

Dena den, sarri joaten da esparru zabaletako zelaietara, eta zizareak eta barraskiloak aurkitzen saiatzen da belarren artean. Barraskiloak harri batez joz apurtzen ditu, eta, atzean, maskor-arrastoak uzten ditu, birigarroa han ibili delako seinale argia.

Ez dugu, baina, **birigarro txikiarekin** nahasi behar (*Turdus iliacus*). Antzekoa da, baina ez da Euskal Herrian umatzen, eta, udazken aldera, espezie horren talde handiak etortzen dira negualdia gure artean igarotzera.

Halaber, txikiagoa da (21 cm), eta, birigarro arruntak ez bezala, hegoen azpian, gaztain-gorrixka kolorea du.

## BASOKO TXORIAK

### Zorzal Charlo (Garraztarroa)

*Turdus viscivorus*

Muy parecido al Zorzal Común, se distingue por su tamaño ligeramente mayor y punteado pectoral más grueso. El reclamo raspante es distintivo. Nidifica sobre todo en bosques de montaña, que además reciben en invierno contingentes de aves procedentes de Europa.



### Garraztarroa (Zorzal Charlo)

*Turdus viscivorus*

Birigarro arruntaren oso antzekoa da, baina handixeagoa da, eta bularralde sendoagoa eta zorrotzagoa du. Emeak erakartzeko, txio garratza du, oso berezia. Mendietako basoetan, batez ere, jartzen du habia, eta, neguan, Europako talde ugari etortzen dira.

Zorzal Charlo  
Garraztarroa





## PÁJAROS DE BOSQUE

### CARBONERO COMÚN

#### Carbonero Común (Kaskabeltz Handia)

##### *Parus major*

En primavera temprana, un recio canto inunda la campiña. Con su “chichipán, chichipán”, el Carbonero Común proclama los ardores del celo y defiende su territorio. Este común pajarillo, de la familia de los páridos, muestra una elevada amplitud de hábitats, al ocupar todo tipo de medios arbolados, desde bosques densos hasta sotos raquíuticos en medios áridos, pasando por todo tipo de medios humanizados.



#### Kaskabeltz handia (Carbonero Común)

##### *Parus major*

Udaberriaren hasieran, kantu sendoa entzun daiteke zelaietan barna. Kaskabeltz handia da, eta bere «txitxipan, txitxipan» baliatzen du araldian dagoela adierazi eta bere lurraldea babesteko. Paridoen familiako txoritxo ezaguna da, eta mota askotako inguruneetan bizi daiteke. Izan ere, mota guztietako zuhaitztietan koka daiteke: hasi baso trinkoetatik eta eremu idorretako sastraka meharretaraino. Halaber, gizakiak okupatutako edozein tokitan ere ikus daiteke.



Carbonero Garrapinos (*Parus ater*), uno de los páridos más habituales en bosques de coníferas y de caducifolios.

Pinu-kaskabeltza (*Parus ater*) parido ohikoenetakoa da koniferetako eta zuhaitz hostogalkorretako basoetan.

## BASOKO TXORIAK

### KASKABELTZ HANDIA



Carbonero Común

Kaskabeltz handia



## PÁJAROS DE BOSQUE



### Reyezuelo Listado (Erregetxo Bekainzuria).

#### *Regulus ignicapillus*

Es uno de los pájaros más diminutos de nuestra fauna, que apenas sobrepasa los 7 gramos de peso. Es sedentario, y típicamente forestal, adaptándose a arbolados más limitantes, como sotos mediterráneos o parques y jardines. Es común en las plantaciones de coníferas de la vertiente atlántica. Un curioso cuento, inspirado en su nombre vulgar y en el mechón de plumas anaranjadas que corona su cabeza, narra que, convocado un concurso entre las aves para elegir a su reina, el astuto reyezuelo se subió a lomos de un águila para, aupado por ella, volar más alto que ninguna otra ave.



### Erregetxo bekainzuria (Reyezuelo Listado)

#### *Regulus ignicapillus*

Euskal Herriko faunako hegaztirik ĩimiĩioetakoa da, eta 7 gramo inguru soilik pisatzen ditu. Sedentarioa da, eta basoari lotuta dago bete-betean. Dena den, eremu mediterranearreko ibar-basoetan edo parke eta lorategietan ere bizi daiteke. Ugaria da, batez ere, isurialde atlantikoko konifera-landaketetan. Haren izena eta buru gainean duen luma-xerlo laranja oinarri, ipuin bitxi bat zabaldu da. Haren arabera, hegaztiekin lehiaketa bat antolatuta zuten, erregea aukeratzeko, eta erregetxo maltzurra arrano baten gainera igo zen, beste inork baino garaiago hegala egiteko.



## BASOKO TXORIAK

### Colirrojo Real (Buztangorri Argia)

#### *Phoenicurus phoenicurus*

Talla: 13 cm. El macho, gris pizarra por encima, cabeza y cara negras con frente blanca y pecho y flancos castaños, es uno de nuestros más bonitos pájaros.

La hembra, mucho menos vistosa, es pardo grisácea con partes inferiores ocreas. Ambos sexos tienen una cola rojiza que agitan constantemente.

Ocupan hábitats bastante variados: bosques, parques y jardines, campiña con bosquetes, etc. En Euskal Herria no es común, criando en la montaña media y área húmeda, pero en época de migración se le puede hallar en cualquier parte. Se hace presente en época estival, nos abandona a fines de verano para invernar en África.

Nido en agujeros de árboles o muros, y pone 5-8 huevos azul pálido.

Su alimentación es a base de insectos y sus larvas, arácnidos y gusanillos.



### Buztangorri argia (Colirrojo Real)

#### *Phoenicurus phoenicurus*

Neurria: 13 cm. Euskal Herriko txoririk ederrenetakoa da.

Arrak arbel-gris koloreko gainaldea du, buru eta aurpegi beltzak, kopeta zuria eta gaztaina-koloreko bularra eta alboak.

Emea, berriz, ez da horren ikusgarria: arre-grisaxka da, eta beheko aldeak gorri-horiak ditu. Biek dute buztan gorrixka, eta etengabe mugitzen dute.

Mota askotako inguruetan bizi daitezke: basoetan, parkeetan, lorategietan, zuhaixkak dituen landazabalean eta abarretan.

Euskal Herrian ez da ugaria, eta garaiera ertaineko mendietan eta eremu hezean umatzen da. Dena den, migrazio-aldian zehar, edozein tokitan ikus daiteke. Udaldian etortzen da, eta udaren bukaeran alde egiten du Euskal Herritik, negua Afrikan igarotzeko.

Zuhaitzetako edo harresietako zuloetan jartzen du habia, eta urdin-argi koloreko 5-8 arrautza inguru erruten ditu. Intsektuak, larbak, araknidoak eta zizaretxoak jaten ditu.



## PÁJAROS DE BOSQUE

### AGATEADOR COMÚN



Su cercano pariente el Agateador Norteño (*C. familiaris*) es una especie rara y amenazada, habitante sólo de hayedos y robledales maduraos de montaña.

Haren kide basoetako gerri-txoria (*C. Familiaris*) espezie urria eta mehatxatua da, eta mendiko pagadi eta harizti helduetan soilik bizi da.

Agateador Común

Gerri txori arrunta



## BASOKO TXORIAK

### GERRI TXORI ARRUNTA

#### Agateador Común (Gerri-txori Arrunta)

##### *Certhia brachydactyla*


El Agateador es uno de esos pajarillos que, en bandos poco apretados, deambulan por los bosques fuera de la época de cría en compañía de herrerillos, carboneros, trepadores y reyezuelos, especies todas ellas que, lejos de constituir un grupo taxonómico homogéneo, se encuadran dentro del “gremio” de los pariformes. Cada uno de ellos se reparte los nichos tróficos que presentan los árboles, y al agateador le ha correspondido la explotación de cortezas. Sube y baja por los troncos apoyándose con las plumas centrales de su cola, más rígidas de lo normal. Su pico delicadamente curvado facilita el acceso a pequeños invertebrados ocultos en las anfractuosidades de la madera.



#### Gerri txori arrunta (Agateador Común)

##### *Certhia brachydactyla*

Amilotxekin, kaskabeltzekin, garrapoekin eta erregetxoekin batean, umaldian zehar basoetan ibili ohi diren banda txikien parte da gerri-txoria ere. Espezie horiek guztiek ez dute inolaz ere talde taxonomiko heterogeneoa osatzen, eta pariformeen barruan sartzen dira. Espezie horietako bakoitzak zuhaitzetako txoko trofikoaren zati bat ustiatzen du, eta gerri-txoriari azala egokitu zaio. Enborretatik gora eta behera ibiltzen da, haren buztanaren erdiguneko lumekin lagunduta. Izan ere, ohikoa dena baina zurrunagoak ditu. Halaber, moko apur bat kaketua du, eta, hala, egurraren tolesturetan ezkutatzaren diren ornogabe txikiak harrapa ditzake.



Agateador Común  
Gerri txori arrunta



## PÁJAROS DE BOSQUE

### CAMACHUELO COMÚN

#### Camachuelo Común (Gailupa)

##### *Pyrrhula pyrrhula*

Talla: 14,5 cm. El macho tiene unos colores muy llamativos, como puede apreciarse en la foto.

La hembra, con un diseño parecido, carece del vivo color rojo del pecho y vientre, que lo tiene de un tono más apagado, pardo rosado.

Es común como nidificante y sedentario, en la zona húmeda y Pirineo, haciéndose raro según descendemos hacia el valle del Ebro. Su hábitat es el bosque con abundante estrato arbustivo, bosquetes alternando con setos y praderas, huertos y sotos.

Hace su nido en setos espesos, zarzas, arbustos densos, etc.

Es sedentario, con tendencia, en todo caso, a frecuentar zonas más bajas en invierno.



#### Gailupa (Camachuelo Común)

##### *Pyrrhula pyrrhula*

Neurria: 14,5 cm. Argazkian ikus daiteke arrek oso kolore deigarriak dituztela. Emeak antzekoak dira, baina haien bularralde eta sabela ez dira gorri biziak, arre-arrosak baizik. Sedentarioa da, eta habia jartzen du e remu hezean eta Pirinioetan. Ebro ibarrerantz hurbiltzen garen heinean, berriz, urriagoa da. Honako habitat hauek ditu: zuhaixka ugariko basoak; zuhaiztiak, heskaiak eta zelaiak tartekatzen dituzten esparruak; baratzeak eta ibar-basoak.

Heskai trinkoetan, sasetan, zuhaixka itxietan eta abarretan jartzen du habia. Sedentarioa da, eta, edonola ere, neguan, toki baxuagoetarako joateko joera du.



BASOKO TXORIAK

GAILUPA





## PÁJAROS DE BOSQUE

### HERRERILLO COMÚN



#### Herrerillo Común (Amilotx Urdina) *Parus caeruleus*

Talla: 11,5 cm.

Tiene comportamiento, hábitat y régimen alimenticio similares a los del Carbonero Común, que es otro *párido*, aunque más pequeño, que siente una especial atracción por los viejos robledales y quejigales, en los que encuentra con facilidad agujeros donde instalar el nido y abundantes insectos entre su rugosa corteza. Igual que al Carbonero tampoco le van las masas de coníferas.

#### Amilotx urdina (Herrerillo Común) *Parus caeruleus*

Neurria: 11,5 cm.

Kaskabeltz handiaren antzeko jokabidea, habitata eta elikadura ditu. Izan ere, amilotxa ere paridoa da, baina txikiagoa, eta harizti eta erkamezti zaharrak ditu bizigunerik gustukoena. Han, habia jartzeko zuloak aurkitu ditzake, bai eta intsektu ugari enborren azal zimurtsuan.

Kaskabeltzak bezala, amilotxak ere ez ditu gustuko konifera-basoak.



## BASOKO TXORIAK

### AMILOTX URDINA



Como la mayoría de los miembros de esta familia es un consumado acróbata. Salta de rama en rama y se cuelga con frecuencia cabeza abajo para inspeccionar la parte inferior de las mismas, o alcanzar un insecto de una hoja más baja.

En invierno suele formar parte de las pequeñas bandas mixtas de páridos (reyezuelos, agateadores y trepadores), que vagan por los bosques en busca de alimento.

Paridoen familiako kide gehienentzako, akrobata trebea da. Adarrez adar egiten du salto, eta, sarritan, ahoz behera zintzilikatzen da, adarren beheko aldean ikuskatzeko, edo beheagoko hosto batean dagoen intsektua harrapatzeko. Neguan, paridoek (erregetxoak, amilotxak eta garrapoak) osatu ohi dituzten banda mistoetako kide ere bada. Banda horiek hara eta hona ibiltzen dira basoetan, elikagai bila.



PÁJAROS DE BOSQUE

PINZÓN VULGAR



## BASOKO TXORIAK

### TXONTA ARRUNTA

#### Pinzón Vulgar (Txonta Arrunta)

##### *Fringilla coelebs*

Talla: 15 cm.

Es el más abundante de todos los pajarillos. Por si fuera poca la población autóctona, recibimos una gran masa de invernantes nórdicos, constituida en su mayor parte por hembras y jóvenes del año, pues los machos suelen ser sedentarios.

Se le ha podido ver establecido tanto en el pinar de Pino Negro de Larra, como en un manzanal de la costa o en un parque urbano. Anida en ramas de árboles y arbustos. Pone de 3 a 6 huevos blancos, manchados.

En invierno suele agruparse en bandas, a menudo mixtas con otros fringílidos, que se distribuyen por campos de labor y terrenos baldíos en busca de comida.



#### Txonta arrunta (Pinzón Vulgar)

##### *Fringilla coelebs*

Neurria: 15 cm.

Txoritxo ugariena da. Bertakoak ugari dira, eta, gainera, Europa iparraldetik masa handia iristen da neguan.

Migratzaile horiek gehienak emeak eta dagokion urtean jaiotako ale gazteak dira, arrak sedentarioak izan ohi dira-eta.


Hala Larrako pinudi beltzean nola kostaldeko sagardietan edo hirietako parkeetan ikusi izan da.

Zuhaitzen eta zuhaixken adarretan jartzen du habia.

3-6 arrautza inguru erruten ditu, orbanekin.

Neguan, bandetan elkartu ohi da.

Banda horiek mistoak dira sarri; beste fringilido batzuekin osatzen ditu, eta lur landuak eta lugorriak zeharkatzen dituzte janari bila.





## PÁJAROS URBANOS Y RURALES

### Gorrión Chillón (Harkaitz-txolarrea)

#### *Petronia petronia*

Este gorrión se diferencia del conocido **Gorrión Común** (*Passer domesticus*), básicamente, mediante las líneas longitudinales que adornan su píleo y la mancha amarilla de su pecho. No obstante, si no se conoce su distintivo reclamo conviene una observación atenta, ya que el parecido con la hembra del Gorrión Común es notable. Se trata de una especie ausente de la vertiente atlántica. En la mediterránea es típico en roquedos y construcciones humanas, ya que su hábitat preferente es rupícola.



### Harkaitz txolarrea (Gorrión Chillón)

#### *Petronia petronia*

**Etxe-txolarrearengandik** (*Passer domesticus*) bereizten da, funtsean, kaskoan lerro longitudinalak dituelako eta orban hori bat, bularraldean. Hala ere, haren txio berezia ezagutzen ez badugu, tentuz begiratzea komeni da, antz handia duelako etxe-txolarrearen emearekin. Espezie hori ez da isurialde atlantikoan bizi. Mediterraneoan, berriz, harkaitzetan eta gizakiak egindako eraikinetan aurkitu daiteke, habitat harkaitzarrak baititu gustuko.



## HIRIETAKO ETA LANDA EREMUKO TXORIAK

### Gorrión Común (Etxe-txolarrea)


*Passer domesticus*

Talla: 14,5 cm.

¿Qué decir de este pájaro que no sea ya conocido? Probablemente lo tendremos tranquilamente instalado en el tejado de nuestra propia casa.

Rara vez se le ve muy alejado de zonas habitadas y lo encontramos hasta en el centro de grandes ciudades, caminando a saltitos sobre el asfalto, mientras picotea migajas y desperdicios.

Comensal del hombre, depende en gran parte de él para subsistir: aprovecha sus desperdicios y anida en sus edificios y construcciones. Compensa los daños que hace en los cultivos consumiendo diversidad de insectos, sobre todo para alimentar a sus pollos.



### Etxe txolarrea (Gorrión Común)

*Passer domesticus*

Neurria: 14,5 cm.


Ezer berririk esan al daiteke txori horri buruz?

Beharbada, gure etxeko teilatuan biziko da, lasai-lasai.

Oso arraroa da gizakia bizi den inguruneetatik urrun ikustea, eta hiri handietako erdiguneetan ere aurki daiteke, saltoka ibiliz asfaltoaren gainean, eta ogi-apurrak edo hondarrak mokokatzen.

Gizakiaren kontura elikatzen da, eta haren mende dago bizirauteko: gizakiaren hondakinak aprobetxatu, eta haren eraikin eta etxeetan egiten du habia.

Laboreetan eragiten dituen kalteen ordainetan, intsektu ugari harrapatzen ditu, txitei jaten emateko, batez ere.





## PÁJAROS URBANOS Y RURALES



### Golondrina Común (Enara Arrunta)

#### *Hirundo rustica*

Esta familiar avecilla debe su popularidad al hecho de anidar preferentemente en el interior de cuadras, portales y habitaciones humanas, en los que dispone sus nidos abiertos en forma de taza, contruidos con barro y fibras vegetales.

Además, es protagonista de leyendas tradicionales y piadosas, como la que atribuye el color rojo de su pecho a que fueran golondrinas las que liberaron de espinas la corona de Jesucristo, tiñéndose con su sangre. Por eso y por su infatigable actividad comedora de plancton aéreo, ha sido una especie generalmente respetada.

Migradora y fenomenal voladora, es posible que sus poblaciones hayan disminuido en las últimas décadas como consecuencia del abandono de las prácticas agrarias en los caseríos.



### Enara arrunta (Golondrina Común)

#### *Hirundo rustica*

Gertuko hegaztitxo horren ospea beraren habia ukuiluetan, atarietan eta gizakien geletan jartzeko ohiturari lotuta dago. Habiak lokatzez eta landare-zuntzez egiten ditu, eta katilu baten moduan irekita daude.

Halaber, elezahar tradizional eta elizkoien protagonista da. Esaterako, haren bularraldeko kolore gorriaren jatorria azaldu izan da esanez enarek kendu zituztela arantzak Jesukristoren koroatik eta odolez zikindu zirela. Horregatik, eta aire-planktona etengabe jateko duen ohituragatik, espezie errespetatua izan da, oro har.

Migratzailea eta hegalaria bikaina da.

Enara-kopurua murriztu egin da azken hamarkadetan, dirudienez, baserrietako nekazaritza-jarduerak bertan beherea utzi izanaren ondorioz.

## HIRIETAKO ETA LANDA EREMUKO TXORIAK

### Emberícidos

Otros miembros de la familia de los emberícidos son el Escribaño Soteño (*Emberiza cirrus*), el Cerillo (*Emberiza citrinella*) propio de matorrales y pastizales y el Montesino (*Emberiza cia*).

### Enberizidoak

Enberizidoen familiako beste kide batzuk dira, esaterako, hesi-berdantza (*Emberiza cirrus*), sasietan eta larreetan bizi den berdantza horia (*Emberiza citrinella*) eta mendi-berdantza (*Emberiza cia*).

### Lúgano (Tarina) *Carduelis spinus*

Talla: 12 cm. Es más conocido aquí por el nombre de Tarín. Solo raras parejas, quizá en la alta montaña pirenaica nidifiquen en Euskal Herria, pero es muy común como invernante.

Aunque su canto no sea muy llamativo, gorjea casi de continuo.

Pasa el invierno merodeando, en pequeños grupos, entre el ramaje desnudo de los árboles en busca de sus semillas, y baja al suelo para alimentarse de hierbas.

El nombre en euskera alude a su afición a la semilla de los alisos.



### Tarina (Lugano) *Carduelis spinus*

Neurria: 12 cm. Gure artean, baita gaztelaniaz hitz egiten dutenen artean ere, *tarin* esaten zaio. Bikote gutxi batzuek soilik egiten dute habia Euskal Herrian, Pirinioetako goi-mendietan.

Dena den, oso ohikoa da hegazti negutar gisa.

Kantu deigarriarik ez badu ere, ia etengabe ari da txioka.

Negua talde txikitan igarotzen du, eta zuhaitzen adar biluzien inguruan ibiltzen dira, hazien bila.

Halaber, lurrera jaisten da belarrak jateko.

Euskarazko izena haltzen haziak jateko duen ohiturari lotuta dago.






## PÁJAROS URBANOS Y RURALES



Estornino Pinto - Arabazozo pikarta



Mapa de  
distribución del  
Estornino Común

Arabazozoaren  
banaketa erakusten  
duen mapa.

Mapa de  
distribución del  
Estornino Negro

Arabazozo beltzaren  
banaketa erakusten  
duen mapa.



### Estorninos (Arabazozoak)

#### *Sturnus spp*

Talla 22 cm. Dos especies de estornino, muy parecidas entre sí, habitan en Euskal Herria:

- el Estornino Pinto (*S. vulgaris*)
- y el Estornino Negro (*S. unicolor*).

Hasta hace unos años el primero de ellos no criaba aquí, llegaba a partir del otoño en nutridas bandas de invernantes, procedente de centroeuropa.

El Negro solo criaba en la zona más meridional del País: la Ribera navarra y Rioja Alavesa.

Desde hace unos años ambos se hallan en proceso de expansión. El Negro ha extendido su área de cría hasta el norte, alcanzando ya el pre-Pirineo y la Llanada Alavesa.

Por su parte, el Pinto se ha extendido hacia el sur. Atravesó el Bidasoa a comienzos de los años sesenta, y se ha instalado a lo largo de la cornisa cantábrica, donde cría salpicado un poco por todo, y ha saltado en algunos puntos la divisoria de aguas. La distinción entre las dos especies es difícil en época de cría. Ambas tienen un plumaje negro con reflejos metálicos verdosos y rojizos, algo más mate el negro y con leves manchas claras el pinto, solo distinguibles de cerca.

El plumaje invernal se distingue bien.

El del Pinto está densamente salpicado de motas blancas, el del Negro sólo muy ligeramente.

### Arabazozoak (Estorninos)

#### *Sturnus spp*

22 cm neurtzen ditu. Oso antzekoak diren bi arabazozo-mota umatzen dira Euskal Herrian:

- arabazozo pikarta (*S. vulgaris*)
- eta arabazozo beltza (*S. unicolor*).

Orain gutxira arte, lehendabizikoa ez zen Euskal Herrian umatzen, eta udazkenean iristen zen, Europa erdialdetik zetozen banda handietan, negua hemen igarotzeko.

Beltza, berriz, Euskal Herriaren hegoaldean soilik umatzen zen: Nafarroako Erriberan eta Arabako Errioxan.

Azken urteetan, baina, bi motak nabarmen hedatzen ari dira.

Beltza, egun, iparralderago ere umatzen da: Pirinioaurrean eta Arabako Lautadan.

Arabazozo pikarta, berriz, hegoalderantz hedatu da.

Bidasoa ibaia zeharkatu zuen XX. mendeko 60ko hamarkadaren hasieran, eta Kantauriko kostaldean zehar kokatu da.

Hainbat tokitan sakabanatuta umatzen da, eta ur-isurialdeen banalerroa ere zeharkatu du. Zaila da bi espezieak bereiztea umatze-aldian. Biek dituzte luma beltzak, distira metaliko berdexka eta gorrixkekin. Beltzaren kolorea mateagoa da, eta pikartak, berriz, orban argiak ditu, baina hurbiletik soilik hauteman daitezke. Negualdiko lumak, oster, ongi bereizten dira. Pikartak pinporta zuri ugari ditu, eta beltzak, berriz, gutxi batzuk soilik.

## HIRIETAKO ETA LANDA EREMUKO TXORIAK

### Tarabilla Común (Pitxartxar Burubeltza)

#### *Saxicola torquata*

Es un pájaro característico de medios abiertos como tojales, praderas, etc. Sedentario; pasa todo el año entre nosotros. Cría en el suelo en nidos bien disimulados al pie de matas.



### Pitxartxar burubeltza (Tarabilla Común)

#### *Saxicola torquata*

Esparru irekiei lotutako txoria da, hala nola otadiei eta larreei. Sedentarioa da, eta urte osoa igarotzen du Euskal Herrian. Lurrean umatzen da, sasien azpian ongi ezkutatutako habietan.





## PÁJAROS URBANOS Y RURALES


### Triguero (Gari-berdantza)

#### *Emberiza calandra*

El sonoro y chirriante canto de este pájaro acompaña al paseante primaveral que discurre entre praderías y cultivos. Desde su percha despejada en un arbusto o valla, el Triguero proclama sus dominios, convirtiéndose en un ave fácil de ver y nada tímida.

En las áreas de cultivos suele compartir el hábitat con otros pájaros como:

- la Alondra (*Alauda arvensis*),
- la Cogujada Común (*Galerioa cristata*), la Cogujada Montesina (*Galerioa theklæ*)
- la Terrera Común (*Calandrella cinerea*).



### Gari berdantza (Triguero )


#### *Emberiza calandra*

Larreen eta labore-lurren artean udaberrian ibiltzen den orok antzemango dio txori horren txio ozen eta garratzari. Sasi edo hesi batean pausatuta, gari-berdantzak bere lurraldea aldarrikatzen du. Erraza da hura ikustea, eta ez da batere lotsatia. Nekazaritza-lurretan, beste txori hauekin partekatzen du habitata:

- hegatzabalarekin (*Alauda arvensis*),
- kutturlio arruntarekin (*Galerioa cristata*), kutturlio mokolaburrarekin (*Galerioa theklæ*)
- txoriandre arruntarekin (*Calandrella cinerea*).



## HIRIETAKO ETA LANDA EREMUKO TXORIAK



### Karnaba (Jilguero) *Carduelis carduelis*

Neurria: 12 cm. Ziurrenik, fringilidoen familiako kiderik ezagunena da. Haren kantu melodiatsu eta alaia dela medio, kaiolan sartuta bukatzen du sarritan.

Ez da bizilekurik onena, baina, basa-espezie batentzat.

Euskal Herri osoan bizi da: ibarren sakonguneetan, hegal baxuetan eta lautadetan. Baratzetan, lorategietan, ibar-basoetan eta zuhaitz edo zuhaixka sakabanatuak dituzten landazabaletan umatzen da. Neguan, bandan ibiltzen da, beste fringilidoekin batera, eta larre zabalak zeharkatzen ditu, jateko hazien bila. Habia zuhaitz edo zuhaiztietako adarretan jartzen du, eta urdin argi koloreko 4-6 arrautza inguru erruten ditu, orbanekin. Sedentarioa da.

Halaber, Euskal Herrian igarotzen dute negua Europa mendebaldeko eta ipar-mendebaldeko karnaba askok.



### Jilguero (Karnaba)

#### *Carduelis carduelis*

Talla: 12 cm. Es el representante quizá más conocido de la familia de los *fringílidos*. Su canto melódico y alegre colorido le llevan, muchas veces, a terminar encerrado en una jaula. No es el mejor destino para una especie silvestre.

Vive por todo el país en fondos de valle, laderas bajas y llanura. Se instala a criar en huertos, jardines, sotos y campiñas con árboles o arbustos dispersos. En invierno vaga en bandas, en unión de otros fringílidos, por campos abiertos a la búsqueda de las semillas de que se alimenta.

Cría en nido con 4-6 huevos azul claro y moteados en ramas de árboles y arbustos.

Es sedentario, y además invernan aquí muchos jilgueros del Oeste y Noroeste europeo.





## CÓRVIDOS



### Córvidos

Los miembros más exitosos de la familia de los córvidos son:

- la **Corneja Negra** (*Corvus corone*)
- la blanquinegra **Urraca** (*Pica pica*). Ambos son animales inteligentes y curiosos, que se han adaptado a la vida en cultivos, campiñas e incluso ciudades.
- la **Grajilla** (*Corvus monedula*), gregaria, habita algunos de nuestros pueblos y ciudades, nidificando en edificios o en cortados rocosos.
- el **Cuervo** (*Corvus corax*) es el representante de mayor tamaño, y es un ave solitaria y propia de montañas.

### Beleak

Beleen familiako kiderik ugarienak:

- **belabeltza** (*Corvus corone*)
- eta **mika** zuri-beltza dira (*Pica pica*). Biak dira animalia azkarrak eta kuxkuxeroak, eta labore-lurretan eta landazabaletan bizitzera egokitu dira, baita hirietan ere.
- **Bele txikia** (*Corvus monedula*) beste bien mendeko taldekidea da, eta gure herri eta hiri batzuetan bizi da. Halaber, eraikinetan edo ertz harritsuetan jartzen du habia.
- **Bele-erroia** (*Corvus corax*) familiako kide handiena da; hegazti bakartia da, eta mendian bizi da.

BELEAK





## CÓRVIDOS

### CUERVO



## BELEAK

### BELE ERROIA

#### Cuervo (Bele Erroia)

##### *Corvus corax*

Con este nombre se designa al córvido de mayor tamaño, un verdadero gigante en el mundo de los pájaros que alcanza los 60 cm de talla. Su librea es negra lustrosa, pero un rasgo anatómico destacado es su poderoso pico.

La dieta es omnívora, consumiendo vegetales, frutos, invertebrados, reptiles, micromamíferos y carroñas, a las que acude para rescatar piltrafas desdeñadas por buitres o águilas.

Instala sus nidos en acantilados y roquedos, en cuyas repisas dispone un amasijo de ramas a modo de plataforma.

Aparte de ese requerimiento, el Cuervo es un ave «todo terreno», que se desenvuelve bien en montañas y zonas arboladas. Suele vivir solitario o en parejas, salvo en el caso de los grupos familiares o de individuos jóvenes.

No es especialmente abundante, aunque tampoco se considere una especie amenazada.

Las parejas son territoriales y sedentarias.

El empleo del término «cuervo» para referirse a todo tipo de córvidos negros es incorrecto.

El auténtico Cuervo es bastante más grande que chovas, grajillas y cornejas, de las que además se distingue en vuelo coronado por la silueta cuneiforme de su cola.

Si emite su voz ya no podrá quedarnos duda, pues se trata de un graznido corto y ronco: «crog, crog», bastante diferente al de las cornejas o al «kiá» de las grajillas y chovas.



#### Bele erroia (Cuervo)

##### *Corvus corax*

Modu horretan izendatzen da belearen familiako kiderik handiena. Hegazti zinez erraldoia da, eta 60 cm neurtzera irits daiteke. Lumadi beltz distiratsua du, eta moko indartsua da haren ezaugarri anatomikorik bereizgarriena.

Orojalea da, eta begetalak, fruituak, ornogabeak, narrastiak, mikrougaztunak eta sarraskiak jaten ditu. Hain zuzen, sarrasketara hurbiltzen da saiek edo arranoek utzitako hondarrak hartzera.

Labarretan eta harkaitzen jartzen du habia, hango erlaitzetan adarrak pilatuz eta plataforma baten moduko forma emanez. Gainerakoan, erroia edozein lekutan mugi daiteke, eta ongi moldatzen da bai mendian bai zuhaitzetan. Bakarrik edo bikotekidearekin bizi ohi da, familia-taldea edo ale gazteak salbu. Ez da oso-oso ugaria, baina ezin da esan espezie mehatxatua denik. Bikoteak beren lurraldeari oso lotuta bizi dira, eta sedentarioak dira.

Ez da zuzena *belea* terminoa erabiltzea belearen familiako kide beltzen mota guztiak izendatzeko. Izan ere, bele-erroia belatxingak, bele txikiak eta belabeltzak baino askoz handiagoa da, eta, gainera, hegan egiten duenean, nabarmen antzeman dakioke haren buztanaren silueta kuneiformeari. Halaber, hari entzunda, ez zaigu zalantza izpirik geratuko. Izan ere, «croj croj» gisako karranka laburra eta zakarra du, belabeltzen hotsaren edo bele txiki eta belatxingek egiten duten «kia»ren oso desberdina.



## CÓRVIDOS

CHOVA PIQUIGUALDA



# BELEAK

## BELATXINGA MOKOHORIA

### Chova Piquigualda (Belatxinga Mokohoria)

#### *Pyrrhonorax graculus*

Sobre 38 cm de talla.


Es sedentaria y sólo el mal tiempo la obliga a descender, en busca de alimento, a cotas más bajas, para volver a pernoctar en sus refugios habituales de la alta montaña.

Es un ave propia del piso alpino, aunque existen en Euskal Herria colonias establecidas a menor altitud, en sierras como Aralar o Aizkorri, en zonas donde la tala y pastoreo han deforestado el terreno dando origen a un paisaje alpinizado al que se acomoda bien la especie.

Se instala, para criar y dormir, en grietas y fisuras de paredones rocosos y, si escasean o faltan, en simas y cuevas.

En el Pirineo hay colonias establecidas a más de 2.500 m y en sus desplazamientos diarios sobrevuela sin dificultad las cimas más altas. Lo más común es hallarla recorriendo las praderas alpinas, en grupos, a la captura de cualquier animalillo que vuele, corra o repté entre el césped: saltamontes, grillos, escarabajos, caracoles, lombrices...

Todo lo aprovecha el poco especializado estómago de esta especie, incluidos los restos de comida que dejan los montañeros.



De plumaje totalmente negro, como tantos otros córvidos, puede confundirse fácil con su congénere la **Chova Piquirroja** (*Pyrrhonorax pyrrhonorax*). Para distinguirlas hay que fijarse en el pico: largo, arqueado y rojo en esta última; más corto y recto en la piquigualda y de color amarillo; recuerda el pico de un mirlo macho. La voz es, también, un dato de diferenciación para los ornitólogos.

### Belatxinga mokohoria (Chova Piquigualda)

#### *Pyrrhonorax graculus*

38 cm inguru neurtzen ditu.

Sedentarioa da, eta eguraldi txarratik soilik jaisten da gune baxuagoetara, elikagai bila. Dena den, goi-mendiko ohiko biziguneetara itzultzen da gaua igarotzera.

Izan ere, goi-mendiko hegaztia da. Dena den, Euskal Herrian, badira garaiera txikiagoko tokietan bizi diren koloniak, esaterako: Aralarren edo Aizkorri. Mendi horietan, lurra zuhaitzik gabe geratu da artzaintza eta basogintza direla medio, eta, espezie horrentzat oso egokia den goi-mendiko paisaia berezia sortu da.

Harkaitzetako pitzadura eta zuloetan bizi da, eta han umatu eta lo egiten du. Dena den, horrelakoak urriak badira, edo horrelakorik ez badago, leizeetan eta kobazuloetan jar dezake habia. Pirinioetan, esaterako, badaude 2.500 metrotik gora bizi diren koloniak, eta, eguneroko lekualdatzeetan, arazorik gabe egiten dute hegan mendi altuenen gainetik. Goi-mendietako zelaia zeharkatzen ikustea da ohikoena, taldeka, hegaka, lasterka edo belarretan narrasten duen edozein animalia bila: matxinsaltoak, kilkerak, kakalardoak, barraskiloak, zizareak... Denetarik onartzen du espezie horren urdailak, baita mendizaleek utzitako janari-apurrak ere.



Belearen familiako beste kide askoren antzera, luma beltz-beltzak ditu, eta erraza da haren kide **belatxinga mokogorriarekin** (*Pyrrhonorax pyrrhonorax*) nahastea. Haiek bereizteko, mokoari begiratu behar diegu: azken mota horrena luzea, kakoduna eta gorria da; mokohoriarena, berriz, laburragoa, zuzena eta hori kolorekoa da, eta zozo arraren moka ekartzen digu gogora. Ornitologok, halaber, ahotsaren bidez bereiz ditzakete.



## CÓRVIDOS

### CORNEJA NEGRA



## BELEAK

### BELABELTZA

#### Corneja Negra (Belabeltza)

##### *Corvus corone*

Esta especie es la más común y frecuente de nuestros córvidos negros, y no debe ser confundida con el Cuervo (*Corvus corax*), aunque a nivel popular se cometa frecuentemente el error de denominarla así.

Aparte de su tamaño y de su hábitat (el Cuervo es considerablemente más grande y típico de montañas y roquedos), un aspecto distintivo es la voz de la Corneja, mucho menos grave.

Ocupa todo nuestro territorio, en ambientes arbolados avecindados con espacios abiertos. En realidad es una especie ubiquista y tolerante, de alimentación omnívora. Como el resto de los córvidos, destaca por su inteligencia y adaptabilidad.



#### Belabeltza (Corneja negra)

##### *Corvus corone*

Euskal Herrian aurkitu daitekeen bele beltzen familiako kiderik ugariena da, eta ez da bele-erroiarekin nahasi behar, nahiz eta jende arruntak *bele* esaten dion sarritan belabeltzari.

Tamainaren eta habitataren aldeko desberdintasunaz gain (erroia puska handiagoa da eta mendietan eta harkaitzetan bizi ohi da), belabeltzaren karranka da beste ezaugarri bereizgarrietako bat, ez baita hain zakarra.

Euskal Herri osoan bizi da, esparru irekien ondoan diren zuhaitzetan. Egia esan, edozein ingurunetara egokitu daiteke, eta orojalea da. Belearn familiako beste kideek bezala, bizkorra da, eta egokitzeko gaitasun handia du.





## CÓRVIDOS

### ARREDAJO

#### Arrendajo (Eskinosoa)

##### *Garrulus glandarius*

Talla: 34 cm. La mayoría de la gente asocia a los córvidos con el color negro, pero esto no va con el Arrendajo, que tiene un colorido variado y hasta vistoso.

Es un córvido forestal al que le va cualquier tipo de bosque, incluido el pinar, lo mismo en la zona seca que en la pirenaica y cantábrica. Es ruidoso, y su grito estridente nos acompaña con frecuencia al atravesar zonas boscosas.

Como todos los córvidos es omnívoro, comiendo tanto bellotas y hayucos como insectos y larvas o huevos y pollos de otras aves y, ocasionalmente, ratones y lagartos.

Es sedentario. Anida en árboles y arbustos altos.

Pone de 3 a 6 huevos verdosos y moteados.



#### Eskinosoa (Arrendajo)

##### *Garrulus glandarius*

Neurria: 34 cm. Jende gehienak kolore beltzarekin lotzen ditu belearen familiako kideak. Eskinosoa, baina, salbuespena da, eta kolore askotarikoak ditu, batzuk oso ikusgarriak.

Belearen familiako kide hori basokoa da, eta edozein motatako basoetan bizi daiteke, baita pinudietan ere.

Halaber, eremu lehorrean, Pirinioetan eta Kantauriko isurialdean aurkitu daiteke. Zaratatsua da, eta sarri entzun dezakegu haren oihu karrankaria basoak zeharkatzen ditugunean.

Belearen familiako kide guztien antzera, orojalea da, eta ezkurak, pagatzak, intsektuak, larbak, beste hegaztien arrautzak eta txitak eta, noizean behin, saguak eta muskerrak jaten ditu.

Hegazti sedentarioa da.

Zuhaitz eta zuhaixka altuetan jartzen du habia.

3 eta 6 arrautza berdexka artean erruten ditu, orbanekin.



**BELEAK****ESKINOSOA**

El mismo comportamiento de hostigamiento adoptan contra las rapaces nocturnas, si las descubren en su escondite a plena luz del día. En ese caso, aliados incluso con otros pajarillos y sabedores de que la rapaz no es peligrosa mientras las sombras de la noche no estén de su parte, l a persiguen hasta que ésta se ve obligada a huir para no soportar el griterío.

Egunez, haren gordelekura hurbiltzen den hegazti harrapariren bati antzematen badio, zirikatze eta oldartzeko joera du. Kasu horretan, bada, beste txoritxo batzuekin elkartzen da, eta, harrapariak egunez arriskutsuak ez direla jakinda, haren atzetik joaten dira, eta harrapariak alde egin behar izaten du, haien hotsak jasan ezinda.



Su áspero grito y la presteza con que lo emite cuando detecta algún intruso en el bosque ha motivado alguno de sus moteos populares («gallo de monte», «jayo») y también el nombre científico («garrulus»), por lo que queda certificada esta costumbre. De hecho, no es infrecuente para un naturalista avezado que pasea por el bosque suponer la presencia de algún zorro en las cercanías al oír la escandalera del arrendajo, ya que este atrevido córvido le increpará desde su seguro refugio en los árboles hasta que el pobre depredador abandone el lugar.



Haren oiuhu zakarra eta basoan ezezagunen bati antzeman bezain laster hotsa ateratzeko duen trebetasuna direla medio, hainbat goitizen herrikoi jarri dizkiote: «mendiko oilarra» edo «iaioa». Izen zientifikoak ere ezaugarri horri egiten dio erreferentzia («garrulus»). Hartara, ohitura hori egiaztatuta geratu da. Izan ere, ez da arraroa basoan barrena dabilen naturalista trebe batek inguruan azeria dagoela pentsatzea, eskinosoak egiten duen zarata malapartatua entzunda. Belearn familiako kide ausart horrek zuhaitzek ematen dioten babesetik oiuhu egingo dio azeriari, eta harrapari gaixoak handik alde egin beharko du.



## CÓRVIDOS

### URRACA

#### Urraca (Mika)

##### *Pica pica*

Con su librea blanca y negra y su larga cola, la Urraca es seguramente una de las aves más conocidas para la gente de campo. Pero quizá también para los urbanitas, porque también coloniza descaradamente parques y jardines ciudadanos.

Dispone su nido globoso, con un techo de ramas, en la espesura de matorrales pinchudos o en lo alto de grandes árboles, lejos del alcance de predadores terrestres.

Es omnívora, y consume frutos, desperdicios y carroña, pero también depreda sobre invertebrados, huevos, pajarillos o micromamíferos.

Es bastante más abundante en la zona interior y mediterránea, donde se desenvuelve bien en los campos de cultivo.



#### Mika (Urraca)

##### *Pica pica*

Lumadi zuri-beltza eta buztan luzea ditu, eta ziurrenik, nekazarien artean, mika da hegazirik ezagunenetakoa bat. Dena den hiriko jendeak ere ongi ezagutzen du, hirietako parke eta lorategiak ere kolonizatzen dituelako, modu lotsagabea.

Globo itxurako habia, adarrez egindako teilatuarekin, jartzen du arantzez jositako sasien artean edo zuhaitz handien gainaldean, hau da, lurreko harrapariengandik urrun.

Orojalea da, eta fruituak, hondakinak eta sarraskiak jaten ditu. Halaber, ornogabeak, arrautzak, txoritxoak edo mikrougaztunak harrapatzen ditu.

Ugariagoa da barnealdean eta eremu mediterranean, ezin hobeki moldatzen baita hango labore-lurretan.



BELEAK


MIKA















#### KREDITUAK ETA ESKERRAK

Ilustrazioek, jatorria zein den jakin izan dugun guztietan, badute erreferentzia. Aipatzen diren orrialdeak obra honi dagozkionak dira.

- Las aves nocturnas. Noguer Argit., 37. or.
- Fauna y Flora de Europa. Guía de campo básica. Blume Argit., 39, 40, 42, 44, 72, 140, 144, 189, 191, 192, 197. or.
- Los Pájaros. Blume Argit, 51, 54, 112, 114, 144, 174, 182. or.
- Espainia eta Europako hegaztien gidaliburua. Omega Argit, 108, 109, 115, 141, 155, 160, 172, 173, 181, 187, 194, 195, 197, 201. or.

Ez dugu aurkitu ahal izan 70, 75, 85, 94, 97, 98, 101, 103, 110, 111, 123, 129, 139, 157, 160, 163, 184. orrialdeetako irudien jatorria.

#### CRÉDITOS Y AGRADECIMIENTO

Las ilustraciones están referenciadas siempre que se ha podido establecer su procedencia.

Las páginas que se citan corresponden a esta obra.

- Las aves nocturnas. Edit. Noguer, página 37
- Fauna y Flora de Europa. Guía de campo básica. Edit. Blume, páginas 39, 40, 42, 44, 72, 140, 144, 189, 191, 192, 197.
- Los Pájaros. Edit. Blume, páginas 51, 54, 112, 114, 144, 174, 182.
- Guía de las aves de España y de Europa. Edit. Omega, páginas 108, 109, 115, 141, 155, 160, 172, 173, 181, 187, 194, 195, 197, 201.

No hemos podido establecer la procedencia de las ilustraciones de las páginas, 70, 75, 85, 94, 97, 98, 101, 103, 110, 111, 123, 129, 139, 157, 160, 163, 184.



---

---

2008ko apirilaren 21ean  
burutu zen liburu honen argitalpena.

La edición de este libro concluyó  
el 21 de abril de 2008

---

---